

Wilhelm von Humboldt, Euskaldunak eta Euskara*

(Wilhelm von Humboldt, the Basques and the Basque language)

Zabaleta-Gorrotxategi, Iñaki
UPV/EHU. Filosofiaren eta Hezkuntza-Zientzien Fak.
Tolosa hirib., 70. 20018 Donostia

BIBLID [0212-7016 (2003), 48: 1; 163-198]

Idazlan honen helburua, Wilhelm von Humboldt-ek euskaldunei eta euskarari buruz egitea pentsatzen zuen ikerketa monografikoaren nondik norakoak sakonean argitzea da. Ikerketa hauei esker ikusiko du berak, hain zuzen, gizakia eta giza-taldea aztertzeko beharrezkoa dela beti hizkuntzaren estudio bat. Euskal monografia hura bere hortan inoiz bukatu ez bazuen ere, asko dira gai honi buruz Wilhelm von Humboldt-ek utzi dizkigun testuak.

Giltza-Hitzak: Humboldt. Euskaldunak. Euskara. Nazioa. Hizkuntza. Antropologia.

El objetivo de este trabajo es explicar los pormenores de la investigación monográfica que Wilhelm von Humboldt pensaba realizar sobre los vascos y el euskara. Gracias a estas investigaciones ve la necesidad de elaborar siempre un estudio del lenguaje a la hora de examinar al hombre y a los grupos humanos. Aunque nunca terminó aquella monografía como tal, son muchos los textos que Wilhelm von Humboldt nos ha dejado al respecto.

Palabras Clave: Humboldt. Vascos. Euskara. Nación. Lenguaje. Antropología.

Le but de ce travail est d'expliquer les détails de la recherche monographique que Wilhelm von Humboldt pensait réaliser sur les basques et l'euskara. Grâce à ces recherches il voit la nécessité de toujours élaborer une étude de langage au moment d'examiner l'homme et les groupes humains. Bien qu'il ne termina jamais cette monographie comme telle, les textes que Wilhelm von Humboldt nous a laissés à ce sujet sont nombreux.

Mots Clés: Humboldt. Basques. Euskara. Nation. Langage. Anthropologie.

* Irudiak: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Cuerpo A. II. libk., 632 or. Añamendi Argitaletaria.

O. SARRERA

Wilhelm von Humboldt (1767-1835) bi alditan egon zen Euskal Herrian eta, bere obrak erakusten digun bezala, interes handia erakutsi zuen bizitza guztian zehar Euskaldunekiko eta bereziki Euskararekiko. Zehazki bi alditan egon zen gure artean: 1799ko Urriaren 10etik 18ra bitartean lehenik eta 1801eko Apirilaren 27tik Ekainaren 3ra bitartean ondoren. Humboldt-ek hasieratik antzeman zuen euskaldunen herriak eta euren hizkuntzak bere antropologiaren garapenerako eduki zezakeen garrantzia eta berehala agertu zuen gai honi buruzko “Monografia” bat idazteko asmoa. Ikerketa hau hasieran pentsatutako forman inoiz burutu ez bazuen ere, egia da bere egitasmoaren eskema eta egitura ondo zehaztu eta bertarako pentsatutako atal guztiak, neurri batean edo bestean, sakon landu zituela. “W. v. Humboldt, Euskaldunak eta Euskara” izenburua daraman testu honek Humboldt-en euskal monografia proiektuaren inguruko zenbait aspektu argitzeko helburua du.

Humboldt-ek 1801 eta 1802 urteetan Paris-en idatzitako testu zati batzu, hain zuzen “Fragmente der Monographie über die Basken” izenburuarekin ezagutzen direnak, garrantzi handia dute bere euskal ikerketen egitasmoa ulertzeko. Urte horietan idatzitako zenbait eskutitzetan ere garbi ikus daiteke, zer nolako interesa duen berak gai honekiko eta zeintzu diren honi buruzko ikerketen bere lehen azarnak. Horrela ba, J.M. Murga (1801-7-20) eta M. Ducos (1801-10-23) Euskal Herriko lagunei bidalitako eskutitzetan Humboldt-

ek bere euskal ikerketen berri ematen die, eta baita honi buruzko “petit travail” edo “petite brochure” bat idazteko duen asmoa aurreratzen. Alemaniako lagunei idatzitako eskutitzetan ere, F.A. Wolf-i (1801-12-12) eta J.G. Schweighäuser-i (1802-1-28) bidalita-koetan adibidez, ematen die bere euskaldunei buruzko saiakeren eta euskararen inguruko “hizkuntza-ikerketen” berri. Honen inguruko eskutitz garrantzitsuena ordea Humboldt-ek bere irakasle izan zen J.H. Campe-ri (1802-6-28) idatzitakoa da: bertan euskal ikerketa monografiko bat burutzeko hartu duen “behin betiko erabakia” adierazten dio, honekin batera idazlarenaren eskema edo aurkibide bat eskeintzen diolarik. Eskutitz guzti hauek garbi erakusten dute, beraz, Humboldt ilusioz beterik itzuli zela Euskal Herritik eta gainera berehala hasi zela euskal gaiari buruzko



Fig. 1. José María Murga de la Barrea Markina, 1770 - Bilbao, 1834) Torre Vidarte. (Markina) Fot. J. Agirreazkuenaga

ikerketa serio bat diseinatzeko. Gogoratu hala ere, urte hauetako testurik esanguratsuena, guretzat, goian aipatutako “Fragmente” izenburukoa dela.

Aurrekoarekin batera, Viena-n idatzi eta 1812. urtean argitaratutako testu bat, “Ankündigung einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation”, oso garrantzitsua da ere Humboldt-en euskal monografiaren ikerketa projektua dela eta. Bere hasierako asmoa, idazlan hau denbora labur batetan burutzekoa bazen ere, era askotako zirkunstantziak –eta batez ere bere zeregin diplomatiko eta politikoko ugariak– ez zituen honetarako aukera handirik utzi eta “Die Vasken” (1805) bidai-kontakizuna bakarrik bukatzea lortu zuen ordurarte. Austriako hiriburura iritsi eta berehala, Humboldt-ek S. Vater-en proposamen bat jaso zuen “Mithridates” izeneko enziklopedia batentzat euskal hizkuntzari buruzko artikulu bat idazteko, eta honela burutu zuen harek “Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder baskische Sprache” (1811) izenburuko testua. Garai honetan bertan, 1810etik 1814ra, idatzi zituen ere euskarari buruzko bestelako testu batzu, hain zuzen Justo Garatek 1933an gazteleratu eta argitaratu zituenak: “Análisis de la lengua vasca”, “Fuentes y medios auxiliares para el estudio de la lengua vasca” eta “Gramática vasca”. Gerora begiratu, eta berriz ere jada aipatutako arrazoi beragatik, Humboldt-ek ez du denbora askorik izango eta euskal historiaurreari buruzko “Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der vaskischen Sprache” (1820-1821) izenburuko testua lantzea eta argitaratzea lortuko du bakarrik. Guzti honetan, ordea, guretzat garrantzitsuena zera da: S. Vater-ek luzatutako eskaerari esker gure autoreari berriz ere pizten zaio euskaldunei eta euskarari buruzko bere interes zaharra, gai honi buruzko monografia oso bat burutzeko aspaldiko bere helburua berreskuratzen duelarik. Hain zuzen, aipatutako “Ankündigung” testuan azalduko du Humboldt-ek, inoiz eta inon baino era osoago eta zehatzago batetan, zergatik eta zertarako nahi duen idatzi euskal monografia bat eta ze egituraren arabera pentsatzen duen hori burutzea.

Humboldt-en euskal ikerketen gainbegirada orokor honen ondoren, iritsi da bere euskal monografia proiektuaren nondik norakoak sakonago aztertzeko unea. Helburu honi erantzun nahi dion idazlan honetan, aipatutako “Fragmente” (1801-1802) eta “Ankündigung” (1812) testuak komentatuko ditugu bereziki, informazio guztia bi ataletan banatuko dugularik. Lehenengoan Humboldt-en “euskaldunei buruzko ikerketa monografikoaren egitasmoa” azalduko dugu: bertan euskal hizkuntzari buruzko bere lehen argitalpena izango dugu hizpide lehenik, euskaldunek nola eta zergatik monografia baten ikerketa objektu propio bat osatzen duten ikusiko dugu ondoren eta hizkuntzak iker-



Fig. 2. Obra de W. von Humboldt.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
 Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
 Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

keta projektu horretan duen funtsezko papera aztertuko dugu azkenik. Bigarren atalean Humboldt-en “euskal monografiaren oinarri antropologikoa” azalduko dugu: bertan batetik berak hizkuntzaren baitan antzematen duen izakera propioa edo berezkoa zertan datzan zehaztuko dugu, bestetik berak hizkuntzatik abiatuz giza-espezieari eta mundu-historiari buruz egiten dituen zenbait gogoeta aurkeztuko ditugu eta bukatzeko bere hizkuntzen ikasketa sistematiko baten egitasmoaz arituko gara. Idazlanari amaiera emateko, Humboldt-en obra aztertu duten bi ikertzaile ezagunen hitzak ekarriko ditugu gogora¹.

1. EUSKALDUNEI BURUZKO IKERKETA MONOGRAFIKOAREN EGITASMOA

1.1. Euskarari buruzko 1801eko argitalpena

Lehenik eta behin, Humboldt-ek euskal gaiei buruz argitaratu zuen lehen testua aipatu eta komentatuko dugu. Euskal hizkuntzari buruzko ohar bat den testu hau, Euskal Herrira egindako bigarren bidaiaren ondoren idatzi zuen eta C. A. Fischer-en liburu baten edizio frantsesean eman zuen argitara, alegia, “Voyage en Espagne” (1801) delako liburuan². Humboldt-ek hemen azaltzen dizkigun ideiak garrantzitsuak dira, jakina, espreski euskarari buruzko bere lehen gogoetak ezagutzeko eta ulertzeko, baina baita bere hizkuntz-teoriaren lehenengo pausuak ikusteko eta ezagutzeko. Esan beharra dago ere, ez dela kasualitatea euskara konkretuki aztergai duen ohar hau, aldi berean, orokorrean hizkuntzari buruzko bere lehen argitalpena izatea³.

1. Humboldt-ek, testu honetan, euskarak hizkuntza bezala azaltzen duen singularitatea nabarmentzen du lehenik. Orain ikusiko dugun bezala, bere ustetan singularitate hau etimologikoki, filosofikoki eta sintaktikoki antzeman daiteke.

Bidaietan zehar ikusi eta ikasitakoaren arabera Humboldt-ek nahiko informazio duela uste du euskal hiztegia neurri haundi batetan jatorrizkoa dela adierazteko, alegia, hizkuntza honen hitz-sustraiak eta hitz-formazioa orokorrean singularrak direla esateko. Garbi ikusten du horrela, inguruko beste hizkuntzekin konparaketak egin ondoren, euskara hizkuntza independente bat dela, “une langue primitive, et non dérivée ... du latin”⁴. Honengatik bakarrik

1. W. v. Humboldt-en obrak era honetan izango dira zitatuta idazlan honetan: lehenik, “Gesammelte Schriften” (GS) edizioari jarraituz, liburukia eta orrialdea emango dira ezagutzera; ondoren parentesi artean, “Werke in fünf Bänden” (WfB) edizioari jarraituz, liburukia eta orrialdea adierazioko dira era berdinean; azkenik izenburuko hitz esanguratsu bat edo batzu azalduko dira. Eskutitzei dagokionez, era honetan zitatuko dira: WvH (Wilhelm von Humboldt) - Hartzailearen Izena eta kartaren data.

2. Fischer, C.A., Voyage en Espagne, aux années 1797 et 1798; faisant suite au Voyage en Espagne, du citoyen Bourgoing. Trad.: Chr. Fr. Crammer, T. 1-2, Paris 1801; Humboldt-en oharra hemen 1. liburukian, 139-144 orrialdeetan dago.

3. Ikus Flitner/Giel in WfB V 459.

4. 140 or.: Humboldt-en oharra in Fischer (1801) T. 1.

ere euskarak garrantzi handia eduki dezake filologiarentzako, Humboldt-ek honako hitz hauekin adierazten digun bezala:

“La langue biscayenne mériterait bien, de la part des philologues, une attention particulière. Jusqu’ici on ne s’en est que très peu occupé. Cependant en parcourant même superficiellement un dictionnaire biscayen, on trouve que cette langue ... possède un très grand nombre de mots qui lui appartiennent en propre, et qui tous ont un caractère véritablement original, quant à leur racine et à leur formation”⁵.

Humboldt-ek aipatzen du ere posible eta komenigarria dela euskararen hiztegia bestelako hizkuntzen ikerketetan erabiltzea⁶, baina garbi ikusten eta esaten du baita euskarazko jatorrizko-hitzen esanahia eta garrantzia lehenik euskal hizkuntza bera etimologikoki aztertzerakoan kokatu behar dela. Azken finean behar beharrezkoa da hizkuntza baten hiztegia ikertzerakoan, bere baitatik hastea. Humboldt-ek euskarari buruz idazten duen bezala: “Elle [une foule de mots radicaux] leur [les étymologistes] servirait de flambeau dans leur recherches sur cette langue ancienne et primitive”⁷.

Aipatu bezala, euskal hizkuntzaren singularitatea, Humboldt-en ustetan, bada ere filosofikoki ere kontsideratzekoa. Berari hain zuzen atentzioa deitzen dio hizkuntza honen iharduteko tankerak, eta zehazki xelebrea ikusten du “la manière dont les biscayens composent les signes de leurs idées”⁸. Hau dela eta Humboldt-ek okasio edo adibide on bat aurkitu duela uste du, kasu konkretu batetan berak ordurarte batez ere teorikoki landutako Pentsatzearen eta Hitzegitearen arteko erlazioa ikertzeko. Guzti honengatik espero duen emaitza bikoitza da: batetik euskaldunen mundu-ikuskera hobeto eza-gutzea, eta bestetik hizkuntza ezberdinen dibertsitatea eta historia orokorrean hobeto ulertzea. Humboldt-ek hitz hauekin adierazten du hau:

“Il serait toujours infiniment curieux pour le philosophe, d’observer et de suivre l’analogie d’après laquelle les biscayens combinent certaines idées pour en former de nouveaux signes, et expriment leurs perceptions. Sans doute on en tirerait des résultats très utiles sur l’originalité et la manière de voir de ce peuple ingénieux; il y a plus, la théorie de la langue biscayenne n’est pas sans utilité relativement à l’histoire des langues en général, à leurs différences particulières et à leur composition”⁹.

Euskal hizkuntzan Humboldt-ek antzematen duen singularitatearen azke-neko arrazoia sintaxi aldetik datorkigu. Honi buruzko bere hitzak asko ez badira ere, garrantzitsua da kontutan hartzea bera hemen jada prozedura lin-

5. 140 or.

6. Ikus 140-141 orr.; Humboldt-ek Euskara, Alemana eta Latinaren artean hitz-sustraien antzekotasun bat aurkitu daitekeela ere uste du.

7. 141 or.

8. 141 or.

9. 141 or.

guistikoen dibertsitateaz interesatzen hasten dela eta baita euskararen "tipo"-ra hurbiltzen ahalegintzen dela, honetarako beste hizkuntzekiko konparazioak oinarri bezala hartzen dituelarik. Esan daiteke beraz, Humboldt-ek hemen bere hizkuntz-tipologiaren lehen urrats bat eskeintzen digula. Honela dio berak:

"Elle [la langue basque] semble en quelque sorte tenir le milieu entre ces langues qui, comme celle des Galibis de Guyane, sont absolument sans flexions, et n'expriment toutes les modification d'idées que par des mots différents, et les langues les plus cultivées, où les syllabes finales sont tellement amalgamées avec le son fondamental, que les mots ne semblent plus de sons composés, mais des sons simples et radicaux; et si l'on ne distingue plus comment de qui dans l'origine n'était que composé, a pu devenir une simple modification d'inflexion"¹⁰.

2. Euskararen baitan susmatzen duen singularitate honetan oinarriturik, Humboldt ondoren euskal ikerketa orokor baten zentzua justifikatzen saiatzen da. Bera azken finean konbentziturata dago gai honen estudio zehatzak ekar dezakeen onuraz.

Honengatik Humboldt-ek harriduraz antzematen du, ordurarte ia inork zeregin hau serioz hartu ez izana. Lehenik euskal idazleak hartzen ditu hizpide, berehala egiaztatzen duelarik gai honi buruzko haien ikerketak kopuruan gutxi eta edukian eskasak direla. Gainera Humboldt-ek garbi ikusten du, euren idazlkanen helburua batez ere praktikoa dela eta ez hainbeste teorikoa. Berak dioen bezala: "Ils ne se proposaient guère pour but que de mettre le lecteur en état de comprendre, de parler et d'écrire le basque"¹¹. Azken finean guzti hau euskal idazle horien formazio mugatuaren ondorio bat izan daitekeela uste du, ze tamalez onartu behar duen bezala, beraien bestelako hizkuntzen ezagutza oso apala eta erabat ez-nahikoa da. Humboldt-ek hemen zehazki zerbait botatzen badu faltan, hiztegi on bat da, alegia, euskal hitz guztiak familiaka aurkeztuko lituzkeen hiztegi bat. Bere hitzetan: "Nous n'avons absolument aucun dictionnaire qui offre l'ensemble des familles des mots biscayens"¹². Horrelako hiztegi bat ordea ezinbestekoa da, baldin eta hizkuntzaren irudi zuzen bat lortu nahi bada. Euskal idazleek egin duten lana aipatu ondoren, euskarari buruz idatzi duten atzerriko idazleetaz arituko da Humboldt. Bere ustetan idazle hauek eskeintzen digutena oraindik ere eskasagoa da, ze euskara bera ondo ezagutu gabe honi buruzko sistema hutsak, "systèmes sur systèmes"¹³, eraikitzen eta defendatzen dituzte. Honen ondorioz ezinezkoa dute euskal hizkuntzaren kontzeptu oso bat ezagutzera ematea, eta eskeintzen dizkiguten beste hizkuntzekiko euskararen ahaidetasunari buruzko ideiek ere ez dute balio handirik, adibide bakan eta alde-batekotan bakarrik oinarritzen direlako. Humboldt-ek dioen bezala: "[Ils]

10. 141-142 orr.

11. 142 or.

12. 142 or.

13. 142 or.

semblent souvent choisis avec autant de partialité que de maladresse”¹⁴. Atzerriko idazle hauen euskal obrak ez dira beraz zientifikotasun nahikoz landuak, eta honen ondorioz ezinezkoa da hauekin serioski ezer egitea. Humboldt-ek benetan gogor kritikatzeko ditu: “La chose à laquelle ils ont le moins songé, c’est à mettre leurs lecteurs à portée de juger par eux-mêmes”¹⁵.

Gai honek benetan eta berez duen garrantzia kontutan hartuz, Humboldt-ek garbi ikusten du euskal hizkuntza serioski eta sistematikoki aztertu beharrekola dela, are gehiago, honi buruzko orain arteko ikerketak kaxkarrak direla ikusi ondoren. Guzti honen helburua honako hau da bere ustetan: lehenik euskararen gramatika eta lexikoa kontu handiz lantzea eta jarraian hizkuntza bera osotasun bezala eta perspektiba bakar batetik aurkeztea. Orduan baka-riik izango da posible Humboldt-en ustetan euskara zuzen baloratzea eta baita berau hizkuntz-ikasketa orokorrean sakontzeko erabiltzea. Horrela ba, berak guzti hau aurretiko lan bat bezala kontsideratzen du. Luze eta zabal honela adierazten du Humboldt-ek ideia hau:

“Tout considéré il vaudrait beaucoup mieux que laissant ces questions épineuses, un littérateur se contentât d’offrir aux amateurs des langues un aperçu détaillé de la langue biscayenne; qu’il s’attachât à en développer le système et la partie soit grammaticale, soit lexicale, autant que le permet l’insuffisance de nos moyens; et à bien distinguer les mots radicaux des dérivés, pour nous présenter un double dictionnaire, d’après l’alphabet biscayen, et d’après celui d’une autre langue. C’est ainsi que l’on pourrait rassembler sous un seul et même point de vue, toutes les familles des mots biscayens, et par là embrasser la masse entière des idées que cette nation jusqu’à présent abandonnée à elle-même, a su exprimer. Ce n’est qu’après un travail de cette nature, que le lecteur se trouvera en état d’apprécier cette langue et d’en tirer des résultats. Un pareil essai pourrait être regardé comme un essai préliminaire à l’histoire générale des langues, qui est à faire, et comme acheminement à une grammaire universelle”¹⁶.

Humboldt-ek bere lehen euskal argitalpen honetan zuzenean esaten ez badu ere, garbi dago berak hemen jadanik buruan darabilen euskal gaiari buruzko ikerketa planaren zirriborroa eskeintzen digula. Fischer-ek berak garbi ikusten du hau, eta honako hitz hauekin ematen dio sarrera gure autorearen oharrari: “Il [Humboldt] se propose de publier incessamment le résultat de ses utiles recherches. En attendant il a bien voulu me communiquer à ce sujet quelques idées que je m’empresse d’offrir à mes lecteurs”¹⁷.

Laburbilduz zera esan daiteke: Humboldt-en 1801eko gogoeta hauek, euskal monografia baten bere plana aurreratzeaz aparte, bere pentsamenduak orokorrean bizi duen hizkuntzaren ganako biraketaren hasiera seinala-

14. 142 or.

15. 142 or.

16. 143-144 orr.

17. 140 or.

tzen dute. Berarentzat eta bere antropologiarentzat ezinbestekoa izango da herrien deskribapen karakterologikoak ahalik eta zehatzten egitea. Baina hemendik aurrera Humboldt-ek garbi ikusiko du, guzti hauek hizkuntzen ikerketetan oinarritu beharko direla.

1.2. Euskaldunak monografia baten objektu bezala

1. Komentatu berri dugun testua, gai honi buruz Humboldt-ek argitaratutako lehenengoa izanik, bere euskal ikerketen hasiera adierazteko erabili dugu. Hemen baino zabalago eta zehatzago lantzen du berak, ordea, euskaldunei buruzko monografia baten bere ikerketa projektua bestelako eskutitz eta testutan. Esanguratsuenak hauek dira: “Fragmente der Monographie über die Basken” (1801-1802) eta “Ankündigung einer Schrift über die Vas-kische Sprache und Nation” (1812). Lehenik eta behin garrantzitsua zaigu ikustea, zergatik eta nola Humboldt-ek ikerketa objektu bezala ikusten eta kontsideratzen dituen euskaldunak.

Euskaldunak Humboldt-en ikerketa antropologikoen objektu bihurtu izana, “kasualitatearen emaitza”¹⁸ bezala ezaugarritzen du berak noiz edo noiz. Zentzu honetan, egia da 1799ko Espainiarako bidaia prestatzen ari denean arduratzen dela lehenengo aldiz euskal gaietaz, honekiko interesa hasieran nahiko orokorra delarik. Honekin ordea ez dago guztia esanda, ze euskaldunen berri eduki ondoren, eta aipatutako bidaia hasi baino urte erdi bat lehenago ere, Humboldt-ek lagun ezberdinei adierazten die euskal hizkuntzarekiko duen interes zientifikoa¹⁹. Nola ez, euskaldunen “Nazioa eta Herriarekiko”²⁰ bere kuriositatea izugarri haundituko da hauek lehenengo aldiz bisitatzerakoan, eta hortik gutxira bigarren bidai bat burutu nahi izango du, espreski euskal probintzia guztiak bisitatzeko eta euskal hizkuntzari buruzko informazioa biltzeko asmoz. Humboldt-ek horrela geroz eta erakarriagoa ikusiko du bere burua euskal “Hizkuntza, Populua eta Herriaren Singularitateagatik”, eta denbora asko igaro gabe “Euskaldunek ... objektu oso interesgarri bat” osatzen dutela bere antropologiarentzat aitortuko du²¹.

Humboldt-ek garbi ikusten du euskaldunak benetan garrantzitsuak izan daitezkeela zenbait ikerketa historiko orokorrako burutu ahal izateko. Baina era berdinean da ere kontziente, euskal ikerketek erakusten duten zailtasunaz, ze berehala antzematen du herri honi buruzko dokumentazio historikoa oso eskasa dela eta honez gero bere aztarna geografiko gehienak ere galduak egon daitezkeela. Horrela ba Humboldt-ek ezinbestekoa ikusten du bere ahaleginak beste euskarri batetan oinarritzea, alegia, hizkuntzan, eta bere ikerlana honen haritik eramatea. Azken finean bestelako informazioak eta datuak gutxi badira

18. III, 292 or. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

19. Ikus WvH. Kunth 4.3.1799 S. 9 und WvH-Schiller 26.4.1799, Bd. II, S. 181.

20. III, 292 or. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

21. III, 292 or. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

ere, herri honen hizkuntzak bere betiko aberastasuna gorde ahal izan du. Humboldt-ek honela dio: “Herritxo honen gaurko txikitasuna alde batera utzita, hizkuntza honek garai batetan zuen hitzen kopurua eta formen aniztasuna mantendu ahal izan du”²². Era honetan hizkuntza, nazioaren historiaren lekuko bihurtzen da. Honengatik uste du Humboldt-ek posible izango dela euskal hizkuntzaren ikerketaren laguntzarekin, euskal nazioaren historiaren garapena jarraitzea eta honen karakterea antzematea eta ulertzea. Honetaz gain ordea bera konbentzituta dago euskaldunak benetan garrantzitsuak izan daitezkeela “Europako historiaurrea”, batez ere hego-mendebaldekoa, eta baita “era honetako beste zenbait puntu eztabaidagarri” aztertzerakoan²³. Humboldt-ek dioten bezala, galdera guzti hauek “euskal hizkuntzaren ikerketa zehatzaren laguntzarekin argitu ahal izango dira bakarrik, zati batetan gutxienez”²⁴.

Hizkuntzalaritzak ere, bere aldetik, interes handia eduki beharko luke euskararekin iharduteko, alegia, gramatika eta lexiko mailan hain singularra den horrelako hizkuntza bat ikertzeko. Hildo honetatik Humboldt-ek linguistika historikoa aipatzen du, batetik. Gure autorearen ustez, hizkuntzalaritzaren adar honek ezingo du bere ikerketa oso urruti eraman, baldin eta ez badu kontutan hartzen, zer nolako gertutasuna edo uruntasuna duen euskal hizkuntzak besteeikiko, alegia, oraindik bizi diren edota dagoeneko hilak dauen gainuntzeko hizkuntzekiko. Humboldt-ek honela adierazten du bere konbentzimendua: “Euskarak Europako sartaldeko hizkuntzen hitz askoren sorburua argitzeko balio du, eta hain da nahitaezkoa Espainiar hizkuntzaren iturrien estudioa burutzeko, haren ezagutza zehatzik gabe erabat ezinezkoa izango litzatekeela honi buruzko ikerlan etimologiko bat”²⁵. Hemen gelditu gabe ordea Humboldt-ek, bestetik, linguistika orokorra hartzen du hizpide. Hain zuzen, hemen ere berak garbi ikusten du euskara oso onuragarria izan daitezkeela hizkuntzalaritzaren beste adar hau lantzerakoan, hau da, “hizkuntzaren estudio orokorra”²⁶ egiterakoan. Azken finean, Humboldt-ek dioten bezala, “hizkuntza aberatsenen eta osoenen egitura eta naturari buruzko ia galdera guztiek aurki dezakete ere erantzuna euskal hizkuntzan”²⁷.

Orain arteko oharrak kontutan hartuz garbi ikus daiteke, nola eta zergatik hartzen dituen Humboldt-ek euskaldunak bere antropologia konparatuaren ikerketa objektu garrantzitsu bat bezala. Bere asmoa “euskal tribuaren deskribapen berezi baina oso bat, ... benetako monografia bat” burutzea da, non “euskaldunak euren ohituretan, hizkuntzan eta historian” osoki ezaugarrituak izango diren²⁸. Humboldt-ek ezinbestekoa ikusten du era honetako ikerlan

22. III, 293 or. (V, 118 or.) “Ankündigung”.

23. III, 293 or. (V, 118 or.) “Ankündigung”.

24. III, 293 or. (V, 119 or.) “Ankündigung”.

25. III, 293 or. (V, 119 or.) “Ankündigung”.

26. III, 293 or. (V, 118 or.) “Ankündigung”.

27. III, 293 or. (V, 118 or.) “Ankündigung”.

28. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

bat, lehenik “tribu” hau besteekiko independentea ote den edo zer nolako mailatan dagoen hauekin ahaidetua argitu ahal izateko, eta hemen oinarrituz, ondoren, euskaldunek “tribu guztien etorkin taulan” ze leku hartzen duten zehaztu ahal izateko²⁹. Dena den, berak aitortu beharra du era honetako ikerketak, eta batez ere euskaldunekin loturikoak, nahiko berriak eta zailtasunez beterikoak direla, eta beraz jakin badaki lortuko diren emaitzak denbora luzez behin behinekoak izango direla. Honengatik Humboldt-en saiakeren asmoa ez da hainbeste emaitza finko batzuetara iristea, baizik eta etorkizunean burutu beharko diren ikerketa ezberdinentzako zenbait “bitarteko esku-
ra”³⁰ jartzea. Berak hitz hauekin azaltzen du ideia hau:

“Nire intentzio nagusia ordea, materialak ahalik eta osoen eskeintzea izango da eta hauek, aurreritziak alde batera utzi nahian, ahalik eta orokorren ordenatzea; horrela, eskeinutako datuen laguntzarekin, beste batzuek posible izango dute sailkapena beste era batetan egitea, [behinik behin] nik eskeinutakoa zalan-tazkoa iruditzen bazaie”³¹.

2. Humboldt-ek euskaldunak bere ikerketa antropologikoen objektu bezala hartzearen arrazoiak ikusi ondoren, berak pentsatutako monografiaren egitura azaltzeko ordua iritsi zaigu. “Fragmente” (1801-1802) eta batez ere “Ankündigung” (1812) delako testuan aurkezten du berak ondoen eta sakonenen bere ikerketa projektuan landu nahi dituen atalak. Gogoratu beharra dago Humboldt-ek ez zuela bukatu “euskal monografia” berak pentsatutako eran, baina egia da ere bere bizitzan zehar sakon landu zituela bertako gai guztiak, hauei buruzko bere idatziak ugariak direlarik. Testu horiek oinarri bezala hartuz, guk hemen monografiaren proiektu osoaren hiru atal nagusiak komentatuko ditugu bakarrik.

Humboldt-ek bere euskal monografiarako pentsatutako lehen atala, lurra-
ren eta biztanleen deskribapen bat eskeintzera dago zuzenduta. Berak honela dio: “Lehen [atalean] ezagutzera eman nahi ditut, nik espainiar eta frantziar Euskal Herrian egindako egonaldian zehar idatzitako oharra, eta baita irakurle-
leari herritxo honen eta bere biztanleen irudi argi bat eskeintzen saiatu”³². Horrela ba, Humboldt-ek hemen batez ere bidaietan zehar jasotako ohar ezberdinak, euskal fisionomia, herri-kultura eta politikari buruzkoak alegia, bil-
tzeo asmoa eta era aske zein bizi baten forman azaltzeko helburua du. Berak dioen moduan: “Aurkezpenaren argitasunari inolako kalterik egin ez diezaioda-
n, atal honi bidai-deskribapen motz baten forma emango diot, herri honen txikitasunarekin eta nire eskurtsioaren iraupen laburrekin bat datorrena”³³. Honen inguruan interesgarria da ordea kontutan hartzea, Humboldt-ek guzti honetan aldaketa esanguratsu bat erakusten duela. Bidaiak burutu zituen

29. III, 291 or. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

30. III, 292 or. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

31. III, 291-2 orr. (V, 117 or.) “Ankündigung”.

32. III, 294 or. (V, 119 or.) “Ankündigung”.

33. III, 294 or. (V, 120 or.) “Ankündigung”.

garaian “antropologia konparatu” bat gauzatu nahian zebilen, eta honen haririk bere helburua euskaldunen karakterizazioa deskribapen ezberdinen bitartez burutzea zen. Baina Euskal Herria ezagutzearekin batera, bere ikerketa antropologikoak hizkuntzaren hildotik eramateko beharra ikusten du, eta ondorioz euskal bidaietan zehar bildutako oharrek karakterizazio-lan sakonago eta zabalago baten parte parte izatera pasako dira. Humboldt-ek orain idazten duen bezala, bidai-deskribapenak “baita ere dira berez interesgarriak” nazioaren zenbait aspektu azaltzeko, baina “erabat beharrezkoak” hizkuntza bera ulertzeko³⁴. Horrela, hasiera batetan pentsatutako bidaiaren kontakizuna, eta bertan gauzatzekoa zen Euskal Herriaren eta Euskaldunen deskribapena, monografía orokorrago baten barne geratuko da. Gai honi buruz Humboldt-ek utzi digun testurik zabalena “Die Vasken” (1805) izeneko da.

Bigarren atalak “Euskal Hizkuntzaren analisi edo zatitze bat”, eta honekin batera “euskararen hizkuntz-laginen eranskin bat”, eskeintzeko asmoa du, guzti honek bere monografiaren atal garrantzitsuena osatuko duelarik³⁵. Humboldt-ek honekin duen helburua “metodo sistematiko eta sakon baten bitartez ... Euskararen egitura-gramatikalaren, baina baita egitura-lexikalaren ideia oso bat ematea da”³⁶. “Fragmente” (1801-1802) izeneko testuan argi adierazten zaigu jada bere asmoa:

“Helburua ez da Euskal Hizkuntza bera irakastea, baizik eta bakarrik adieraztea nola hau beste hizkuntzetatik, zahar zein berri, nabarmentzen den. Honengatik nire aurkezpena asmo honen arabera egituratuko dut: nahi dudana, hizkuntza honek bere elementuak eraldatzeko jarraitzen duen metodoa azaltzea da, eta ez hainbeste eraldaketa horien zerrenda bat egitea, [alegia] bere egituraren zati guztiak, hain zuzen arau Bakar baten arabera epaituak izan behar dutenak, elkarrekin biltzea”³⁷.

Honekin batera gogora ekarri beharreako da, euskarak lehen urrats bat osatzen duela Humboldt-en hizkuntz-ikasketa konparatuaren eraiketan. Honengatik garrantzitsua iruditzen zaio hasieratik hizkuntza hau besteekiko erlazioan ikertzea, eta saikera honetan ikerketa-metodoa bera finkatzen joatea. Egiaz, euskararekin



Fig. 3. Humboldt, W. von, *Los Vascos*. Añamendi Argitaletxea, 1975.

34. III, 294 or. (V, 119 or.) “Ankündigung”.

35. III 294 or. (V 120 or.) “Ankündigung”.

36. III 294 or. (V, 120 or.) “Ankündigung”.

37. VII, 593 or. (V, 100 or.) “Fragmente”; ikus II, I 294 or. (V, 120 or.) “Ankündigung”.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
 Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
 Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

hasten da Humboldt bere aspaldiko “hizkuntza guztien entziklopedi sistematikoko baten plana”³⁸ gauzaten. Azken finean, era honetan burututako hizkuntz-analisi konparatu bati esker izango da bakarrik posible euskararen izakera zehatzago finkatzea. Humboldt-ek honela dio: “Euskal hizkuntzaren eta beste hizkuntzen arteko konparaketa orokor bat eskeiniko dut, ahal den neurrian, horrela, bere egitura orokorraren arabera, dagokion Klasea eta bere ahaidetasunaren arabera, dagokion Familia zehazteko”³⁹. Gai honi buruzko Humboldt-en testu garrantzitsuenak, jada aipatu bezala, 1811ean idatzitako “Berichtigungen und Zusätze ...” eta 1810-1814 urte bitartean idatzitako “Análisis ...”, “Gramática ...” eta “Fuentes ...” dira.

Euskal monografiaren hirugarren eta azken atalean, Humboldt-ek “euskal hizkuntza eta nazioari buruzko ikerlan historiko eta filosofiko”⁴⁰ batzu burutze-ko asmoa du. “Aurreko bi atalen emaitzak”⁴¹ jaso behar dituen lan honetatik, orokorrean lortu nahi duen emaitza bikoitza da. Batetik hauen bitartez Euskal Herria, beste herriekin konparatu ondoren, hobeto karakterizatu eta baloratu ahal izatea espero du. Bestela formulatuz, honekin Humboldt-ek euskal nazioak eta hizkuntzak gainuntzeko “nazio eta hizkuntzen artean” hartzen duen “lekua zehaztu” nahi luke⁴². Ikerlan horien bitartez bestetik, Hizkuntza berari buruzko kontsiderazioak perspektiba berriak irabaztea eta honekin hizkuntzikasketa antropologikoa aberastu ahal izatea espero du. Humboldt-en ustetan euskara benetan garrantzitsua izan daiteke “hizkuntzaren kontzeptua bera ezagutzeko eta zabaltzeko”⁴³. Ikerlan historiko-filosofiko hauek burutzea ez da ordea batere erraza, eta berak aitortzen duen bezala euskal monografiaren atal honek, ezingo du izan aurreko biak bezain konbentzigarria. Ikerketa-objektuak eduki mailan berez dituen zailtasunak eta euskal gaiei buruzko alde aurreko lanen gabeziak kontutan hartuz, garbi ikusten du berak hirugarren atal honen burutze oso eta egoki bat ezinezkoa izango dela, eta interpretazio subjektiboak hemen beste ataletan baino paper haundiago bat jokatu beharko duela. Dena den Humboldt erabat sinetsita dago, lehen bi atalek nahiko material objektibo eskeiniko dutela, beste norbaitek behar izanez gero, euskal ikerlan historiko-filosofikoak berriz landu ahal izateko. Berak dioen bezala: “Azken atal honek halabeharrez neure ideien eta konbentzimenduen emaitzak bilduko ditu; ziur nago ordea aurreko biak burutuko ditudan bezala burututa, beste edozein adituk posible izango duela gero hirugarrena bere erara garatzea edo eraldatzea”⁴⁴. Aztergai guzti hau gertuen lantzen duen Humboldt-en testua “Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vaskischen Sprache” (1820-1821) delakoa da.

38. VII 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”; ikus III, 294-295 orr. (V, 120 or.) “Ankündigung”.

39. III, 298 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

40. III, 299 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

41. III, 299 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

42. III, 299 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

43. III, 299 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

44. III, 299 or. (V, 125 or.) “Ankündigung”.

1.3. Hizkuntzaren funtsezko papera euskal monografian

Pentsatutako euskal monografiaren egitura orokorra aurkeztu eta gero, Humboldt-ek hizkuntzari bertan gordetzen dioen paper pribilegiatua azaltzen saiatuko gara. Aipatutako bi testuek, “Fragmente” eta “Ankündigung”, garbi erakusten dute euskal hizkuntzak gidari papera hartu behar duela euskal nazioa karakterizatzen orduan. Kasu konkretu honi esker ikasitakoak ordea balore orokorrago bat izango du Humboldt-entzat, eta hemendik aurrera beti aldarrikatuko du Hizkuntzaren eginkizun nagusia edozein Nazio karakterizatzerakoan. Hemen, testu horietan azaltzen diren hizkuntzari buruzko zenbait ideia garrantzitsu komentatuko ditugu bakarrik.

1. “Hizkuntza batetan eta berean etimologizatzea”⁴⁵ izenburuean, euskal hitzen jatorrizkotasunak edota autonomiak planteatzen duen problematikari egin nahi die aurre Humboldt-ek bere monografian. Oraindik ere harrিতuta, zera idazten du euskarari erreferituz “Prüfung” (1821) izeneko testuan: “Ez guztiek baizik eta hizkuntza jakin batzuek bakarrik onartzen dute bere baitan erro gehienek aurkikuntza eta bestelako hitzen analisi erregularraregitea”⁴⁶. Horrela ba, garbi ikusten du euskal hitz-famili gehienek hizkuntza honetan eta honetatik bakarrik izan daitezkeela ikertuak eta argituak.

Baina euskal eremuan bakarrik geratu gabe, egiaztapen honek bide ematen dio hizkuntzaren kontsiderazio etimologikoari buruz orokorrean pentsatzeko. Humboldt-en arabera etimologi-lana bikoitza da, alegia, hizkuntza bakar batetara edota hizkuntza gehiagotara erreferituz egin daiteke. “Zera galde daiteke: nola deribatzen dira hitzak elkarrengandik hizkuntza honetan edo bestean? edo nola sortu dira elkarrengandik hizkuntza hauek edo besteak?”⁴⁷ Etimologi lana zientifikoki eta era emankorrean burutu nahi bada, bi galderei eman beharko zaie erantzuna. “Etimologizatze ororen helburua”, dio Humboldt-ek, “bi aplikazioak etenik gabe elkarrekin lotuta badoaz bakarrik lortuko da osoki”⁴⁸. Beraz, berak ez du hemen “zientzia etimologiko baten ideia”⁴⁹ orokorra zalantzan jartzen. Baina Humboldt-entzat, bere garaiko hizkuntz-ikertzaieleentzat ez bezala, bi aplikazio edo galdera horiek ez daude maila berdinean: hizkuntza baten baitan burutzen den ikerketa etimologiakoak lehenetsuna du eta hizkuntza gehiagotara zuzenduriko etimologiaren aplikazioa aurrekoaren menpeko da. Etimologiaren eta etimologizatzearen kontzepzio honen azpian Humboldt-en hizkuntzaren kontzepzioa dago. Honen arabera hizkuntza bakoitza ez da elementu solteen pilaketa mekaniko bat bezala ulertu behar, baizik eta osotasun organiko bat bezala, bertako elementuen arteko lotura funtsezkoa delarik. Ikuspegi honetatik abiatuz kontsideratzen du Humboldt-ek lexikoari buruzko azterketa, etimologizatzea bera azken finean hizkuntz-ikasketa orokorraren osagai garrantzitsu bat bezala ulertzen duelarik.

45. VII, 594 or. (V, 101 or.) “Fragmente”.

46. IV, 70 or. “Prüfung”.

47. VII, 594 or. (V, 101 or.) “Fragmente”.

48. VII, 594 or. (V, 101 or.) “Fragmente”.

49. VII, 597-8 orr. (V, 105 or.) “Fragmente”.

Berarentzat garbi dago, lehenik hizkuntza baten barnean ikertu behar direla analogiak, eta ondoren bakarrik saiatu beste hizkuntzekiko loturak zehazten. Humboldt-entzat etimologi-lana ez da ordea bakarrik “hitzen erroak edo jatorriak bilatzearen” zientzia, baizik eta baita “hitzen tonuen eta horien esanahien arteko analogiaren arauak aurkitzearen ... artea”⁵⁰. Hizkuntz-ikerketaren ororen misterio-kutsua nolabaite aditzera emanez, honako hitz hauekin deskribatzen digu berak konkretuki etimologizalearen eginbehar zaila:

“Etimologizaleak oso kasu gutxitan zuzendu ditzake bere baieztapenak datu edota lekuko historikoetara, eta ez garrantzi txikiko kasutan. Berak, konparatu beharreko hizkuntza ezagunak bakarrik ditu aurrean. Hauengan, tonuen eta esanahien berdintasunean fijatu behar du lehenik eta hemendik hizkuntz-asmatzailearen ideien-joskera igarri eta era sinesgarri-antzeko batetan bereizi behar du”⁵¹.

Bukatzeko zera esan dezakegu: euskal hitz familien jatorrizkotasunak erabat baldintzatuko du Humboldt-ek burutu nahi duen monografiaren proiektua, bertan ikerketa etimologikoak euskal hizkuntzaren analisi zabalagoaren atal garrantzitsu bat osatuko duelarik; baina honetaz aparte, guzti honek ikerketa etimologikoaren berezko zeregina zehazten eta honekin batera baita hizkuntzaren kontzepzio orokorra lantzen lagunduko dio.

2. “Printzipio ziur bat bezala har daiteke, hizkuntza batetan guztia analogian oinarritzen dela eta bere egitura, bere zati txikineraino ere, egitura organiko bat dela”⁵². Euskararen analisi linguistikoaren nondik norakoak zehazterakoan sortzen diren Humboldt-en hitz hauek, bere hizkuntzaren kontzepzio orokorraren adierazgarri on bat osatzen dute. Honen arabera, kasualitateak edo arbitrariotasunak ezin du eragin handirik eduki hizkuntza beraren formakuntzan. Humboldt-ek dioenez: “Hizkuntza giza espezie osoaren behar eta emaitza zelako, bere oinarrian nolabaiteko orokortasuna eta argitasuna eduki behar du”⁵³. Hau horrela izanik hizkuntzaren analisiaren helburua bere “elementu ezberdinen arteko analogia posible guztiak”⁵⁴ arakatzea, alegia, hizkuntzaren barne-erlazioa ikertzea, izango da.

Humboldt-ek era honetan planteatzen duen hizkuntzen ikerketak zenbait zailtasun gaudituz behar ditu. Lehenik eta behin honako hau hartu behar da kontutan: edozein hizkuntzaren jatorrizko analogiak ez dira inoiz erabat garbi azaltzen. Humboldt-ek egiaztatzen duen bezala, nazio guztiak denboran zehar elkarrekin nahasten joan dira, eta honekin hizkuntza bakoitzaren formazio garbia hizkuntz-elementu arrotzengandik asaldataua izan da. “Gure eta jatorrizko hizkuntz zein herrien arteko hesia hain da handia, haienganako transmisioa etenduta dagoela”⁵⁵, eta beraz hizkuntza baten jatorrizko egoeraren errekons-

50. VII, 594 or. (V, 101-102 orr.) “Fragmente”.

51. VII, 595 or. (V, 102 orr.) “Fragmente”.

52. III, 295 or. (V, 121 orr.) “Ankündigung”.

53. VII, 595 or. (V 102 orr.) “Fragmente”.

54. VII, 595 or. (V, 102 orr.) “Fragmente”; ikus Flitner/Giel in WfB V, 643 orr.

trukzio osoa pentsaezina dela onartu beharko da. Hau horrela izanagatik, garrantzitsuena hemen zera da: Humboldt-ek posible ikusten du oraindik hizkuntz-analogien zentzuzko ikerketa bat burutzea, ze aipaturiko asaldaketa horien bitartez hizkuntza bakoitzak, indar asimilatzaile bat garatuz, elementu arrotzak eraldatzen ditu, bere baitan horrela erabat inorganikoa edo analogigabea den ezer geratzen ez delarik. Zehazki hau idazten du berak:

“Hizkuntza batek elementu arrotz bat hartzen duen edo beste batekin nahasten hasten den momentuan bertan, bere aktibitate asimilatzailea eta ahalegina jartzen du martxan elementu hori bestearen jatorrizko analogiaren arabera ahal bezain beste eraldatuz, horrelako nahasketekin lerro analogiko luzeago edo motzagoak sortzen direlarik eta, nekez bada ere, masa erabat inorganikoa saihesten delarik”⁵⁶.

Honetaz gain, Humboldt-ek garbi ikusten du hizkuntzen ikerketak beste zerbait ere hartu behar duela kontutan, ze, berak dioen bezala, “egiaz aurrean dagoen analogia ere, ordea, ez da uzten beti azken xehetasuneraino harrapatzen”, alegia, ez da uzten erabat “erdigune batetan biziki fusionatzen”⁵⁷. Batetik, gizakiek batez ere “instintiboki”, eta ez hainbeste “kontzienteki”, jarraitzen diote bere hizkuntzaren analogiari, honela denboran zehar zenbait hizkuntz-elementu galtzen direlarik⁵⁸. Bestetik Humboldt-ek onartu beharra du hizkuntza “nonahi dela bitartekari”, eta honengatik baita “zerbait propioa, ulertezina eta nahasia”⁵⁹. Hizkuntz-analisi orok du beraz zailtasun hauekin kontatu beharra.

Laburtuz esan beharra dago, Humboldt-en arabera hizkuntz-ikasketaren helburua hizkuntzen analogia edo egitura organikoa antzematea eta berarengana hurbiltzea dela, baina jakinda ezinezkoa izango dela hauen natura bera finkatzea. Iharduera honetan bereziki garrantzitsua izango da hizkuntza bakoitza besteekin konparatzea, eta baita hura berau hitzegiten duen nazioarekiko erlazioan ikertzea. “Hizkuntzaren naturara gehiago hurbiltzen gara”, idazten du Humboldt-ek,

“baldin eta hizkuntza ezberdinak zehatzago behatzen baditugu eta honela gizadi osoaren hizkuntz-formazioaren aktibitate orokorrean sartzen bagara, baldin eta hizkuntza bakoitza (ezinbestean honen zatitze edo analisi aurre-lana egin ondoren) karaktere nazional jakin baten espresio indibidual eta zehatz bat bezala antzematen ahalegintzen bagara”⁶⁰.

55. III, 295 or. (V, 121 or.) “Ankündigung”.

56. III, 295 or. (V, 121 or.) “Ankündigung”.

57. III, 295, 296 orr. (V, 121, 122 orr.) “Ankündigung”.

58. III, 296 or. (V, 122 or.) “Ankündigung”.

59. III, 296 or. (V, 122 or.) “Ankündigung”.

60. III, 296 or. (V, 122 or.) “Ankündigung”.

Pentsatutako euskararen hizkuntz analisia, beraz, euskal nazioa osotasun bezala karakterizatu nahi duen monografia baten zati bat bakarrik izan daiteke.

3. Aurrekoan oinarrituz, Humboldt hizkuntzaren analisia edo zatitzearen berezko zeregina eta baita honen hizkuntzaren ikasketa orokorrekiko erlazioa zehazten saiatuko da. Hizkuntza bat bere osotasunean analogia edo egi-tura organiko propio batez inguraturik eta honengatik gobernatuta badago ere, ez da erraza hau elementu isolatu bakoitzean antzematea, analogia horrek “ez duelako hizkuntza bakar bat ere osoki zeharkatzen”⁶¹. Humboldt-ek adierazten duen bezala, hizkuntza bakoitza bi osagai ezberdinez dago osaturik: batetik “analogikoki osatutako zerrenda pila haundi bat”, eta bestetik “azalpen gehiagorik onartzen ez duten elementuak”⁶². Ezagutza honetatik abiatuz hizkuntz-ikasketaren zeregina, zatitze edo analisi linguistikoaren laguntzarekin, “hizkuntzaren osagai bikoitz hori”⁶³ guztiz eta zehatz ikertzea litzateke.

Analisi linguistikoaren helburua honela formulatzen du Humboldt-ek zehatzago: hizkuntza “norabide guztietan” ikertzea eta berarengan “erregularatasun sistematikoen arrasto bakoitza” jarraitzea, ahalegin honetan, “bilatzearen grinaren kulpagatik edo, aurkitutakoa asmatutakoarekin” nahasi gabe⁶⁴. Iharduera honengandik espero behar den emaitza, hizkuntzaren konposizio bikoitzaren araberrakoa izango da, eta halaber berez bere osagaizati organikoaren zein inorganikoaren berri eman beharko du. Humboldt-ek honela dio: “Zatitze linguistikoaren azken emaitza beraz bikoitza da: batetik arau, printzipio eta analogien sistema orokor eta, gehiago edo gutxiago, ziur bat, alegia, hizkuntzaren egiazko organismoa, eta bestetik gehiago zatitu ezin daitezkeen hizkuntz-elementuen nolabaiteko masa inorganiko bat”⁶⁵. Hizkuntza baten analisia edo zatitzea ondo burutzeko ordea, ezinbestekoa da bere zeregina eta prozedura hobeto zehaztea. Helburua “hizkuntza baten ikasketa erraztea” bakarrik balitz, bere zatitze edo analisiak “nahiko izango luke erabat ziurrak eta egiaz oinarritzekoak diren analogiak aurkeztearekin”⁶⁶. Baina Humboldt-en asmoa, honetaz gain, “hizkuntz-ikasketa orokorra eta zientifikoa” sustatzea ere denez, hizkuntza jakin baten zatitzeak edo analisiak badu bestelako betebeharrak. Berak dioen bezala honek “analogi-arrasto txikiena erakusten duen puntu bakoitza aztertu behar du, bere obligazioa hau txoko txikieneraino jarraitzea delarik”, naiz eta guzti honetan “geroko ikerketak etekin aberatsagorik emango ez duelaren arriskua egon”⁶⁷. Beti ere zatitze edo analisi linguistiko honek hizkuntzaren aspektu gramatikalak zein lexikalak

61. III, 297 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

62. III, 297 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

63. III, 297 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

64. III, 297 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

65. III, 298 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

66. III, 297-298 orr. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

67. III, 298 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

hartu beharko ditu kontutan. Honi dagokionez Humboldt-ek garbi ikusten du hiztegi mailako ikerketa izango dela zailena: “Horrelako zatitze batetan, jakina, askoz ere errazagoa da diskurtsoaren konstrukzioaren edo gramatikaren sistemarekiko konfrontazioa, hitz-formakuntzaren edo lexikoaren sistemarekiko baina”⁶⁸. Azken zailtasun hau bereziki garbi ikusten du euskararen kasuan. Naiz eta Humboldt-ek ezin dituen ukatu hizkuntza honetan aurkitzen dituen “argiak, ziurrak eta nolabaite deigarriak diren analogiak”, aitortu egiten du “ezinezkoa izango dela euskararen hitz-formakuntza analogikoa osoki” ezagutzera ematea⁶⁹. Dena den garrantzitsua ikusten du honetan ahalegin-tzea, ze berak dioen bezala “nik gehien erabili dudana euskal hizkuntzalariak [Astarloa] sistema propio bat eraiki du honetaz, eta, zuzena edo okerra izan, ezinbestean aipatu eta epaitu beharrekoa da”⁷⁰.

Beti ere komenigarria da berriz gogoratzea, Humboldt erabat kontziente dela horrelako analisi linguistikoek duten mugetaz: “ez dago hizkuntza baten benetako naturara iristerik, zatitze linguistiko baten bitartez, hau konpletoena bada ere”⁷¹. Bere iritziaren arabera, analisi hori derrigorrezko abiapuntua da hizkuntzaren kontsiderazioan, baina honen estudioak “gizadiaren azken sakontasuneraino”⁷² garamatza berehala. Honengatik idazten du Humboldt-ek: “Bide honi egoki jarraitzen badiogu hizkuntz-ikasketa-hutsaren mugen bestaldera iritsiko gara”⁷³. Honekin are garbiago geratzen da, beraz, euskararen zatitze edo analisi linguistikoa, zein aipatutako helburu eta prozeduraren arabera burutu beharrekoa den, berak osatu nahi duen Monografia orokorren zati bat baino ez dela izango.

2. EUSKAL MONOGRAFIAREN OINARRI ANTROPOLOGIKOA

2.1. Hizkuntzaren izakera propioa

Humboldt-ek pentsatutako monografiaren asmoen aurkezpenak garbi erakutsi du, hemendik aurrera hizkuntza izango dela bere euskal ikerketa guztien erreferentzi puntua eta haria. Kontua da, hemen aldaketa garrantzitsu bat antzeman daikeela, zeinek bere planteamendu antropologikoak ezagutzen duen hizkuntzaren ganako biraketarekin zerikusia duen. Hau ordea ez litzateke posible izango Humboldt-ek aldi berean bere hizkuntzaren kontzepzio orokorra zabaldu izan ez balu. Gure aldetik garrantzitsua da ohartaraztea, bere pentsamenduaren bilakaera honetan leku aparta betetzen duela euskal gaiak, ze euskararen ikerketa konkretutik abiatuz jabetu ahal izango da bera,

68. III, 298 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

69. III, 298 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

70. III, 298 or. (V, 124 or.) “Ankündigung”.

71. III, 296 or. (V, 122 or.) “Ankündigung”.

72. III, 296 or. (V, 122 or.) “Ankündigung”.

73. III, 296 or. (V, 112 or.) “Ankündigung”.

hizkuntzak berez duen esanahi filosofiko eta antropologiko sakonaz. “Fragmente” testuko hitz hauek ederki laburtzen dute Humboldt-ek hizkuntzaren baitan antzematen duen berezko izakera: “Ohi denez hizkuntza beharraren obratzat jotzen da, eta ahaztu egiten da bera ingenioaren obra dela”⁷⁴.

1. Baieztapen honekin Humboldt-ek, batez ere, hizkuntzaren jatorriarekin loturik dauden zenbait arazo filosofikoei egiten die aurre testu hauetan. Mui-nean esan dezakegu berarentzat gizakia eta hizkuntza banan-ezinak direla, eta hain zuzen honengatik ez duela berak hizkuntzaren jatorria genetikoki bai-zik eta filosofikoki ulertzen. Beti ere kontutan hartu beharrekoa da gai honi buruzko Humboldt-en ideia asko Herder-en “Abhandlung über den Ursprung der Sprache” (1770) idazkian inspiratzen dira.

“Animali”-izateetik “gizaki”-izaterako igarobidea, Humboldt-ek “erreflexio” kontzeptuarekin azaltzen duen Pentsatzearen eta Hitzegitearen garapen bate-ratutik esplikatu daiteke⁷⁵. “Lehen hitza” gizakiak “erreflexionatu” dezakeen “momentu berean” da ahoskatua, alegia, “bapatean ixilik geratu” eta “objetu batekin konfrontatu eta berau behatu” dezakeen momentuan⁷⁶. Gizakiaren izate pentsatzailea, beraz, bere izate hitzegiletik banan-ezina da. Humboldt-entzat garbi dago “gizakiak hasieran hitzegin bazuen, berak hizkuntzarik gabe pentsatu ezin zuelako” izan zela, hau da, harek hau osatu zuela “bere burua honen baitan garatu” ahal izateko⁷⁷. Perspektiba honetatik zera egiaztatu daiteke: hizkuntzaren sorrera batez ere “gizaki guztiengan bat eta bera dena-gatik dela determinatua”, alegia, gizaki izateko bere barneko beharragatik; bertan “hiztunaren egoera indibidualean oinarritzen diren zirkunstantzi berezi guztiek”, kanpoko beharrek, “bigarren mailako eragin” bat dute bakarrik⁷⁸. Honela azaltzen du Humboldt-ek hau:

“Ez ziren asmatu zeinu arbitrarioak kanpoko behar bat bat asetu nahiarri erantzunez, baizik eta beste nolabaite: gizaki edo izaki behatzaile eta pentsatzaile bat izateko barneko beharrari erantzunez, ordurarte garbi pentsatua izan ez zen kontzeptua sortu zen hitz batetan, eta hitz honetatik –giza-pentsamenduen eta giza-sentsazioen arauen emaitza bezala– hitz berriak eta berriz ere berriak garatu ziren, nahitaez, arau horien analogiari jarraituz”⁷⁹.

Horrela ba, Humboldt-en arabera hizkuntza ezin da, gabezi-egoera batetik abiatuta sortu ez eta esplikatu, baizik eta ingenio kreatzaile baten aktibitate-tik abiatuta bakarrik. “Gabezia” premiazkoegia da “artikulatu gabeko sentsazio-soinuak” (orruak) baino zerbait gehiago ekoizteko; “ingenioa” ordea “tonu artikulatuak” (hitzak) sortzeko situazioan dago, eta azken hauek osatzen

74. VII, 595 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

75. VII, 595 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

76. VII, 595-596 orr. (V, 103 or.) “Fragmente”.

77. VII, 596 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

78. VII, 596 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

79. VII, 596 or. (V, 103-4 orr.) “Fragmente”.

dute hain zuzen hizkuntz-formazioaren oinarria⁸⁰. Hildo honetatik azaltzen du Humboldt-ek ere, zergatik bere ustetan hizkuntza guztia “aldi berean”⁸¹ edota “kolpe batez”⁸² sortu behar izan zen. Orruen kasuan ez bezala, non soinuak isolaturik azaltzen diren, tonu artikulatuen kasuan hitzak beti beste hitzekiko erlazioan agertzen dira. Honela ondorioztatzen du Humboldt-ek: “Lehen hitzarekin ordea beste guztiei ere mingaina askatu zitzairen. Ze hizkuntza harrian erdi-lotan dagoen su-txinpartaren parekoa bait da”⁸³.

Ondorio moduan, beraz, zera esan dezakegu: hizkuntza, gizakiaren izatearekiko bere lotura sakona dela eta, ezin da ez “erreflexioaren eta adostasunaren emaitza” ez eta “gizakiaren ... edo are gutxiago banakoaren obra” izan⁸⁴. Humboldt-en arabera hizkuntza naziotik sortzen da. Honela adierazten digu hau berak: “Benetako mirari esplika-ezin bat bezala irtetzen da hizkuntza nazio baten ahotik, bai eta era berdinean harrigarria den haur bakoitzaren zizkaduratik, naiz eta hau gure artean egunero errepikatzen den eta [honen-gatik] axolarik gabe behatzen dugun”⁸⁵.

2. Hizkuntzaren jatorriaren inguruko kuestio filosofiko hauetaz aparte, gizakiaren karaktere soziala bereziki aztergai duten arazo antropologiko garrantzitsuetara seinalatzen du Humboldt-ek testu hauetan ere. Azken finean euskaldunen artean egon izanak problematika honen inguruko zenbait ideia garrantzitsu lantzen laguntzen dio. Hain zuzen, horrela jabetzen da Humboldt Hitzegitea eta Ulertzearen arteko banan-ezintasunaz eta, honekin batera, baita hizkuntza bakoitzak dagokion nazioarekin osatzen duen ulermen-eremu propioaz.

“Fragmente” izeneko testuan honela idazten du Humboldt-ek: “Hizkuntzarik gabeko gizakien komunitate bat, kontzeptu kontraesankor bat da guztiz”⁸⁶. Hizkuntzak osatzen du, beraz, gizakiaren karaktere sozialaren frogarik onena. “Ni” eta “Zu” ez dira “txandaka galde-egiten” duten “kontzeptuak” bakarrik, baizik eta “egiaz kontzeptu identikoak”⁸⁷. Humboldt-ek dioen bezala gizakia ez da “bananduta” bizi, baizik eta berak “bere antzekoa den izaki batekin” tratatzen du; horrela honek, “familien gizarte” batetik abiatuz, gizarte “zibil” bat prestatu eta “lurreko biztanle guztien ideia kosmopolita” batetarako deia luzatu dezake⁸⁸. Hau ordea, hizkuntzari esker bakarrik da

80. Ikus VII, 595-596 orr. (V, 103 or.) “Fragmente”.

81. IV, 3 or. (III, 2 or.) “Vergleichendes Sprachstudium”.

82. IV, 15 or. (III, 11 or.) “Vergleichendes Sprachstudium”.

83. VII, 596 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

84. III, 296 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

85. III, 297 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

86. VII, 596 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

87. III, 297 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

88. VII, 597 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

posible, zein hasiera hasieratik gizakiarena den. Humboldt-ek dioen bezala: “Ahoskatutako hitz bakoitza ahalegin bat zen besteaengandik ulertua izateko. Isolatutako gizakia ez litzateke inoiz hitzegiteko okurrentzira etorriko. Ze hizkuntzarenganako disposizioa era banan-ezinean dago soziabilitatearenganako disposioarekin lotuta”⁸⁹.

Honen ondorioz onartu beharra dago Ulertzeak hizkuntzaren osagai garrantzitsu bat osatzen duela Hitzegitearekin batera, ze, Humboldt-ek adierazten duenez, artikulatu gabeko orruekin gertatzen denaren kontra, artikulatutako hitz bakoitzak besteaen “belarria ulertzeri gonbidatzen du” eta entzule bakoitzaren baitan dagoen “erreflexionatzeko eta artikulatzeko gaitasuna iratzartzen du”⁹⁰. Honengatik “hizkuntza, beti ere, bi hizlarien emaitza kolektiboa bakarrik”⁹¹ izan daiteke. Baina, hitzegite-ulertze binomio hau dela eta, ez dugu pentsatu behar prozesu simetriko baten aurrean aurkitzen garenik. Humboldt-ek egiaztatzen duen bezala, Hizlariaren hitz bakoitza Entzule bakoitzaren aldetik beti da desberdinki eraldatua, alegia, “ulertze erosoago batetarako moldatua” edo “erabilera hobeago batetarako leundua eta findua”⁹². Perspektiba honetatik ezinezkoa da Esandakoa eta Entzundakoaren arteko aho bateko korrelazio garbi batetara iristea, eta ondorioz Ulertzeak halabeharrez dakar bere baitan Gaizki-ulertzearen posibilitatea. Humboldt-en arabera ez dago, beraz, erabateko ulermenik edo ulertzerik gizakien artean: “Kultura garaienean bai eta gauza sinpleenetan ere, ez du inork bestea osoki eta guztiz ulertzen. Bestalde, gutako bakoitzak gaizki-ulertua izatearen posibilitatearekin kontatuz hitzegiten du, eta jakintsuagoak gai finetan gaizki ulertua izatearen probabilitatearekin”⁹³.

Horrela ba, hizkuntzak gizakien arteko ulermenaren posibilitatea sorrarazten duen bezala, aldi berean, ulermen horren mugak bistarazten ditu. Humboldt-en konbentzimenduaren arabera, ulermen hori posible da hizkuntza, beti ere, hizkuntza nazional bat delako, alegia, hizkuntza horrek nazio baten partaide diren gizaki ezberdinak sinkronikoki zein diakronikoki lotzen dituelako. “Eguneroko ariketari esker” banakoen hizkuntza partikular ezberdinak “elkarrekiko erabilera errazeneraino dira berdinduak nolabaite”, honen bitartez eta ondorioz “banakoaren indibidualitatearen arrasto zorrotzegia” desagertzen eta “itxuraz arbitrarioa dena” baztertzen delarik⁹⁴. Humboldt-ek hemendik ondorioztatzen duen bezala, “gizarte txikiagoa ... hurrengo zirkulutan” garatzen doa, eta hizkuntza horrela “tipo orokorrigo batetaz” jabetzen doa, hizkuntza hori hitzegiten dutenen kopurua handitzen doan bezala⁹⁵.

89. VII, 596 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

90. VII, 596 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

91. VII, 597 or. (V, 104-105 orr.) “Fragmente”.

92. VII, 596 or. (V, 103 or.) “Fragmente”.

93. VII, 597 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

94. VII, 597 or. (V, 105 or.) “Fragmente”.

95. VII, 597 or. (V, 105 or.) “Fragmente”.

Hala ere garbi dago hizkuntza batetik beste batenganako jauzia handiagoa dela, ze hizkuntza ezberdinek nazioen arteko ulermenaren argi eta garbi mugatzen dute, naiz eta ez eragotzen. Humboldt-ek honela deskribatzen du hau: “Zirkulu sozialek ordea zabalera ezberdin bat dute, eta euren mugak hizkuntzarengandik dira berriz ere finkatuak. Hauetako bakoitza, bere kideak elkarren artean erraztasun-gradu berdinean ulertzen diren neurriaren arabera hedatuko da”⁹⁶.

Aurreko oharrek, zeintzuk hizkuntza ingenioren aktibitate kreatzaile baten emaitza eta ez behar-situazio baten ondorio bezala kontsideratzen duten, garbi erakusten dute zergatik Humboldt-en hizkuntzaren inguruko erreflexioa eta azterketa ez den hizkuntz-analisi tekniko batetara mugatzen. “Hizkuntzaren izate miresgarria” ezin daiteke “zatitze linguistiko lehor eta beti eskas” batetan erabat oinarritu⁹⁷. Garrantzitsua da beraz Humboldt-entzat, hizkuntzaren estudioa egiterakoan, “giza-espeziearen bizitza organikoaren ikuskera” zuzen eta zabal batetik abiatzea, bertan kontutan hartuz giza-espeziearen bizitza hori “leinu eta naziotan, eta ondorioz munduaren historian” gauzatzen dela⁹⁸.

2.2. Giza-espeziea, mundu-historia eta hizkuntza

Humboldt-ek historiarekiko duen interesa bere antropologiaren kontzepzioan oinarritzen da, alegia, gizakiak eta nazioak indibidualitate konkretu bezala ezaugarritu nahi dituen antropologia batetan. Horrela, bai bere gaztaro “antropologia konparatuan” bai eta bere helduaroko “hizkuntz-antropologian” ezinbesteko garrantzia du giza-banakoaren eta giza-taldearen ikerketa historikoak. Honen lekuko dira ere 1814 eta 1818. urteetan Humboldt-ek “mundu-historiari” buruz idatzitako zenbait testu⁹⁹, zeintzu lagungarri izan daitezke bere euskaldunei buruzko proiektu monografikoa ulertzeko. Gu hemen ordea, testu orokorrago hauetan gehiegi sartu gabe, batez ere “Ankündigung”-en problematika honi buruz esaten diguna azaltzen eta komentatzen saiatuko gara.

1. Humboldt-ek berak dioten bezala, euskaldunei buruzko ikerketak giza-espeziea bere garapen historikoan ikertu nahi duen “mundu-historiaren elaborazio jakin eta oso beharrezko batekin”¹⁰⁰ daude lotuta. Munduaren historiak printzipioz giza-espeziearen alde askotariko estudio bat “onartzen eta exigitzen” du, “ikuspuntu ezberdinetatik” abiatzen den estudio bat¹⁰¹.

96. VII, 597 or. (V, 104 or.) “Fragmente”.

97. III, 297 or. (V, 123 or.) “Ankündigung”.

98. III, 297 or. (V 123 or.) “Ankündigung”.

99. Ikus “Betrachtungen über die Weltgeschichte” (1814) und “Betrachtungen über die bewegenden Ursachen in der Weltgeschichte” (1818).

100. III, 288 or. (V, 113 or.) “Ankündigung”.

101. III, 288 or. (V, 113 or.) “Ankündigung”.

Baina Humboldt-ek tamalez ikusten duen bezala, posible eta ezinbestekoak liratekeen perspektiba guzti horietatik batzu baino ez dira landuak izan. Berezi honako hau botatzen du faltan: giza-espeziea naturaren zati bezala tratatzen duen kontsiderazioa.

Humboldt-ek dioen bezala, gizakia, "hizkuntzaren eta askatasunaren ideiatatik" bereizten da beste bizidunengandik, baina gogora ekartzen du ere, "giza-espeziea" bere osotasunean "natur-landare" bat bezalako delako eta "honen leinu eta nazio ezberdinak" berriz "natur-produktuak" bezalakoak direla¹⁰².



Fig. 4. Tipos Vascos. A. Arrúe.

Giza-izakiak erakusten duen karaktere naturala berezkoa du harek, eta honengatik onartu beharra dago "arrazak", "lurrak", "eskualdeak" eta "zeruak" bere eragina dutela giza-espeziearen "jatorrizko antolaeran" bai eta "bere garapean", eta ez bakarrik natur-izakiengan¹⁰³. Honako hitz hauekin azaltzen du Humboldt-ek hau:

"Giza-espeziea naziotan, leinutan eta arrazetan dago bananduta; giza-banakoa, bere borondatearen eta bere independentzia moralaz kontziente den heinean, edonolako lekutan autonomo eta aske den bezala, espezie guztia berriz naturarena da, landare eta animalien espeziekin gertatzen den bezalaxe"¹⁰⁴.

Horrela ba, Humboldt-entzat garbi dago, giza-espeziearen mundu-historia sakon ikertu eta ondo ulertu nahi izanez gero, ezinbestekoa dela gizakiak naturan duen partehartzea kontsideratzea. Leinuen arteko ezberdintasunak ere ezin dira bere ustetan zuzen argitu, naturak beraiengan duen eragina kontsideratzen ez bada. Hildo honetatik zera idazten du Humboldt-ek adibidez: "Leinu bat beste baten aurretik saritua izana ... ez da hainbeste esfortzua-ren, saitzearen [edo] formazioaren fruitua, baizik eta izpirituaren zein gogoaren indar ezberdinen zoriareko tentsioaren, egoeraren eta nahasketaren emaitza naturala"¹⁰⁵.

102. III, 352 or. (I, 569 or.) "Betrachtungen" (1814); ikus ere III, 354-5 orr. (I, 572 or.).

103. III, 289 or. (V, 113 or.) "Ankündigung".

104. III, 288-289 orr. (V, 113 or.) "Ankündigung"; ikus Flitner/Giel in WfB V, 647 or. "arrazei" buruz.

105. III, 289 or. (V, 113 or.) "Ankündigung".

Giza-espeziea beraz naturaren zati bat bezala izan behar da behatua, harek bere bilakaeran erakusten duen aniztasunaren galera edo irabazia ulertu ahal izateko behintzat. Nazio partikular ezberdinak bestalde, Humboldt-ek dioen bezala, elkarri eragiten dioten izaki organikoak dira eta, honen bestez, interakzio horretan eraldatu edota hil egin daitezke ere. Bere hitzetan: “Elkarren ondoan existitzen diren nazioak ... emigratu, banandu, elkartu, nahastu, hil egiten dira, –fisikoki benetako dekadentziagatik edo izpiritualki degenerazioagatik–, leku berria egiten diete [beste nazioei] edo beraiek bertan, eraldatuta, berriz agertzen dira”¹⁰⁶. Hemen adierazitakoaz aparte Humboldt-ek aipatzen du ere giza-espeziearen natur-zatia kontsideratzea lagungarri izan daitekeela, gizakiaren zenbait aspektu eta aldaketa historiko ulertzeko. Honengatik hitzegiten du berak, guzti honekin lotuta dagoen gizadiaren abarasteaz:

“Hala ere, alde batetik edo bestetik lortutako abantaila bakoitzak eragiten jarraitzen du, neurri batetan hau garaipen bat delarik, alegia, aldi berean gizadiaren ekintzaren bitartez aurkezten uzten den eremuan lortutako garaipen bat; eta honela sortzen dira etenik gabe gizadiaren bestelako formak, perfekzio handiagoko edo txikiagokoak, baina beti ere elkarri laguntzen dioten eta elkarren eraginez lortzen diren gizadiaren formak”¹⁰⁷.

Giza-espeziearen izakera naturalari buruzko ohar hauek lagungarri zaizkigu Humboldt-ek euskal nazioa eta hizkuntzarekiko duen interesa hobeto ulertzeko. Azken finean bere antropologiak mundu-historia ikuspegi ez-espekulatibo batetik nahi du ikertu, eta egitasmo honetan Euskal Herriak aukera on bat eskeintzen dio ikerketa hori gauzatzen hasteko. Horrela ba, euskaldunak adibide bezala hartuta, Humboldt-ek “leinu-karaktere garbi”¹⁰⁸ bat zer den nahi du argitu, eta aldi berean ze baldintzen arabera sortzen eta desagertzen den nazio bat ikertu¹⁰⁹. Beraz, horrela hartzen du berak “herri-leinu isolatu eta banandu bat, euskaldunena den bezalakoa, xehetasun eta zehaztasun guztiekin deskribatzeko erabakia”¹¹⁰.

2. Mundu-historiaren zeregina giza-espeziearen ikerketa zabal eta sakon bat burutzea da, baina, Humboldt-ek adierazten duen bezala, bertan perspektiba ezberdinak har daitezke abiapuntu gisa. Giza-espeziearen ikuskera orokortzaile batetik abiatuz gero, mundu-historiaren betebeharra honako hau izango litzateke: “isolatutako gertaera nagusiak eta iraultza moralak jarraitzea, zeintzuk masa txikien ‘batasunera’ zuzenduta dauden, eta gizadi osoaren izakera morala beti gorago kokatzen den helburu Batetara gidatu nahi duten”¹¹¹. Hau ukatu edo ahaztu gabe, ordea, gogora ekartzen du Humboldt-

106. III, 289 or. (V, 113-114 orr.) “Ankündigung”.

107. III, 289 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

108. XIII, 13 or. (II, 426 or.) “Die Vasken”.

109. Ikus Flitner/Giel in WFB V, 647 or.

110. III, 288 or. (V, 113 or.) “Ankündigung”.

111. III, 289 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

ek giza-espeziearen ikuskera indibidualizatzailea: giza-espezie hori bere banaketan, “jatorrian batez ere, natura fisikoak (mendiak, itsasoa, hibaia) eragin-dako bere ‘banaketan’”, behatu daiteke eta behar da, zeregin hau ez delarik “mundu-historiaren obligazio txikiago” bat¹¹². Gehienbat perspektiba honetatik abiatuz eramaten du Humboldt-ek bere euskal ikerketa aurrera, naiz eta berak garbi eduki hemen “mundu-historiaren zereginetako ‘batetaz’ bakarrik hitzegiten ari dela”¹¹³.

Interesgarria izan daiteke orain goian aipatutako 1814 eta 1818ko “mundu-historiari” buruzko testuei begirada bat botatzea, Humboldt-en ikerketa historikoen perspektiba hobeto ulertzeko. Beste gauza askoren artean, bertan “mundu-historiaren ikuskera”¹¹⁴ filosofikoegi baten kritika aurkitzen dugu, eta honekin batera baita haren ikuskera indibidualizatzaileago batetarako deia. Azken finean Humboldt-ek ez du onartzen munduaren historia filosofiko huts bat, honek batetik “ia kultura eta zibilizazioa bakarrik ikusten dituelako”, bestetik “gizakiaren espezieak gehiegi behatzen dituelako izaki arrazoidun eta adimendun bezala eta gutxiegi natur-produktu bezala” eta azkenik “abstraktoki pentsatutako perfekzio orokor baten lorpenean” bilatzen duelako “giza-espeziearen osatzea”¹¹⁵. Hau dela eta Humboldt-ek “zentzu historikoa”¹¹⁶ ezabatzen ez duen munduaren historia indibidualizatzaile baten beharra aldarrikatzen du, honela bakarrik izango baita posible “forma indibidual handien aberastasun baten garapenean”¹¹⁷ oinarritzen den giza-espeziearen hobekuntza bultzatzea. Ez da beraz mundu-historiaren “filosofia” bakarrik ikertu behar, baizik eta baita bere “fisika” ere¹¹⁸. “Ankündigung” testuan aurkitzen ditugun zenbait ohar lagungarri dira ere ulertzeko, nolakoa den Humboldt-en mundu-historiaren ikuskera. Berak garbi du ezeren aurretik “nazioen eta arrazen ahaidetasun” askotarikoa sakon ikertu behar dela, “behin eta berriz forma berriak” sortzen dituen “natura beraren aktibitatea” begibistan edukitzeko, bai eta “gizakia eta bere baitan espresatzen den ideiare handitasuna kontutan hartzeko”¹¹⁹. Honen atzean giza-espeziea kontsideratzeko era jakin bat dago, zein Humboldt-ek landare batekin zerikusia duen adibide baten laguntzarekin azaltzen duen. Horrela ba, landare bat behatzerakoan ikusten dugu bai “bere sustraiak egiaz lurrarekin daudela trebatuta”, baina aldi berean baita “beste mundu garaiago baten ihintzagatik freskatua eta eguzkiagatik berotua dela”¹²⁰. Adibide honen haritik, Humboldt-

112. III, 289 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

113. III, 289 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

114. III, 358 or. (I, 575 or.) “Betrachtungen” (1814).

115. III, 358 or. (I, 575-576 orr.) “Betrachtungen” (1814).

116. III, 350 or. (I, 567 or.) “Betrachtungen” (1814).

117. III, 358 or. (I, 576 or.) “Betrachtungen” (1814).

118. III, 360 or. (I, 578 or.) “Betrachtungen” (1818).

119. III, 289 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

120. III, 290 or. (V, 114 or.) “Ankündigung”.

ek uste du mundu-historiak bere aldetik era berdintsuan antzeman behar duela honako hau: giza-espezia “zuzenean dago lotuta naturarekin, eta hau haren bizitza organikoa gobernatzen duten ideiekin”¹²¹.

Horrela ba mundu-historiak, bere zeregina bete nahi badu, ezinbestekoa du gizaki eta nazio errealeen kontsideraziotik abiatzea, ze Humboldt-ek dioen bezala “gizadia erabat korporala dirudien naturan bakarrik bizi daiteke, bere baitan natura horren zati bat eramaten duelarik”¹²². Honengatik da mundu-historiarentzako hain garrantzitsua, “nazio eta banako singularretan” arreta jartzea eta hauen “monografia serie bat ekoiztea, zein ahal bezain beste jatorriaren arabera ordenatua den”¹²³. Hau da hain zuzen Humboldt-ek euskaldunekin egin nahi duena.

3. Esandakoagatik ikus daitekeen bezala, mundu-historiaren alde zurreko lana “leinu singularren deskribapen zehatz, zabal eta fidagarri bat”¹²⁴ prestatzea izango da. Humboldt-en arabera hau ez da ordea posible hizkuntz-ikerketara konparatu baten laguntzarik gabe, ze hizkuntzek paper garrantzitsu bat jokatzeko dute nazioen egitura. Berak dioen bezala, “nazioen ezberdintasuna euren hizkuntzetan adierazten da era zehatzen eta garbienean”, eta honengatik lotu behar ditu mundu-historiak “hizkuntzaren estudioa [eta] ohi-turen eta historiaren estudioa”¹²⁵. Hizkuntzak beraz paper garrantzitsu bat jokatu du Humboldt-en mundu-historian.

Problematika hau dela eta, ordea, berak aitortu eta onartu egin behar du, “hizkuntz- eta historiaren estudio batua oraindik ez dela perfektioaren maila egoki batetara iritsi”¹²⁶. Egin izan dira, bai, hainbat “ekarpen estimagarri”, baina Humboldt-ek ikasketa hura ondo orientatuko duten “ideia gidari orokorak” botatzeko dituen faltan¹²⁷. Lehenik eta behin “hizkuntzen ahaidetasun-gra-dua zehaztuko”¹²⁸ duten printzipio finkoak behar direla dio. Humboldt-ek euren hizkuntzen errotik ateratako hitz solteak bakarrik aurkitzen ditu, eta hauek halabeharrez zatikako konparaketak egiteko aukera bakarrik eskeintzen dute. Horrela ba, “euskarri eta konparazio-puntu bezala balioko duten gertaera gutxi”¹²⁹ aurkitzen ditu. Honetaz gain, Humboldt-ek herri ezberdinei buruzko lan monografikoak beharrezkoak ikusten ditu ere. Berak dioen bezala: “Oraindik ez dago antzeko helburu batekin burututako herri-leinuen ikerke-

121. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

122. III, 353 or. (I, 570 or.) “Betrachtungen” (1814).

123. III, 358 or. (I, 576 or.) “Betrachtungen” (1814).

124. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

125. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

126. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

127. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”; ikus ere Flitner/Giel in WfB V, 647 or. (aipatutako ekarpen horiei buruz).

128. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

129. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

tarik, ez bakar batena ere”¹³⁰. Honen haritik Humboldt-ek “herri ezberdinen elkarren arteko jatorria adierazten duten”¹³¹ seinale analogoak, bat datozenak, botatzen ditu faltan ere. Hizkuntz-ikerketek eduki beharko luketen garrantzia dela eta, berak oraindik ere gehiago zehazten eta sakontzen du haien eskasari egindako kritika. Humboldt-ek aurkitzen dituen “hizkuntzen lanak” ez dira tratatu autonomoak, baizik eta “konparazio orokorren” eranskin hutsak¹³². Hain zuzen, eskuartean dituenak hauek dira: “gramatikak”, “hiztegiak” eta “oso bestelako helburu batetarako” egindako “hizkuntz-historiak”, zeintzuk ondorioz laguntza gutxi eskeintzen duten “detalleetara zehatzago” iritsi nahi denean¹³³. Honetaz gain, Humboldt-ek ezagutzen dituen “lan etimologikoak”, orokorrean, “printzipio finkorik gabe” eta “arbitrariotasun handiarekin” egindakoak dira, eta honi buruz bestela aurkitutako “hipotesi eta sistema” solteak, zenbait ohar interesgarri eskeintzen badute ere, “ikerketa historiko” zabalagotan sakabanaturik eta isolaturik daude¹³⁴.

Humboldt-ek ikerketa historiko-linguistikoen baitan antzematen duen falta honela laburtu daiteke: gizadiak “arrazetan, leinutan eta naziotan” erakusten duen banaketari buruzko kontzeptu garbirik ez dago, eta ondorioz ezta ere “nazio baten hizkuntzak haren formazioan neurri eta bitarteko izateko erari buruzkoa”¹³⁵. Berak ordea argi eta garbi ikusten du “hizkuntzen, historiaren eta herrien estudioen elkarketa benetan landu beharreko” zerbait dela, ze honek “giza-espeziaren ezagutzari eta duintzeari” mesede handia ekar lekiok¹³⁶. Humboldt-ek berak, horrela, ikerketa eremu berri eta emankor baten aurrean ikusten du bere burua. Kontu handiz honela dio berak: “Nik ez ditut egiaz eskasi guzti hauek hemen aipatzen besteentzako gaitzespen bat bezala, baizik eta nik neuk nire gain hartu nahi dudan lanaren aitzaki iragankor bezala”¹³⁷. Euskaldunei buruzko Humboldt-en plan monografikoa beraz, bere hizkuntz-antropologiaren lehen urrats bat bezala ulertu behar da¹³⁸.

2.3. Hizkuntzaren ikasketa sistematikoa

Aurrerapauso bat emanez, Humboldt-en euskal ikerketen oinarri antropologikoa hobeto ulertzen saiatuko gara, honetarako haren hizkuntz-estudioen

130. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

131. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

132. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

133. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

134. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

135. III, 290 or. (V, 115 or.) “Ankündigung”.

136. III, 290-291 orr. (V, 115-116 orr.) “Ankündigung”.

137. III, 291 or. (V, 116 or.) “Ankündigung”.

138. Ikus III, 362 or. (I, 580-581 orr.) “Betrachtungen” (1818): hizkuntzak nazioarentzako duen esanahiari buruz.

kontzepzioa zenbait puntutan komentatuko dugularik. Hasieratik garrantzitsua da hemen kontutan hartzea, berarentzat hizkuntz-estudio orokorraren eta ikerketa antropologikoaren artean ez dagoela banaketa edo separazio zorrotzik. Hau argitzeko, Humboldt-en “Fragmente” (1801-1802) testuko zati bat hartuko dugu hizpide, zeinek “hizkuntz estudioari buruz edo hizkuntza guztien entziklopedia sistematiko batetarako plana”¹³⁹ izenburua duen.

1. Lehenik aipatuko dugun ideiak, Humboldt-en ustetan hizkuntz-estudio orok hizkuntza ezberdinen arteko konparaketari eskeini beharko liokeen atentzioarekin du zerikusia. Aztergai eta egitasmo hau formulatu zuen jada Leibniz-ek, 1765ean idatzitako “Nouveaux essais sur l’entendement humain” testuan, baina gure autorearen ustetan “erabat landu gabe geratu”¹⁴⁰ da gai eta asmo hura. Humboldt-ek ordea ez du amore ematen, eta garbi du “garai zahar eta berriko hizkuntza ezberdinen konparaketaren” ideia, “erreflexioaren eta azterketaren gai aberats, handi eta jendearentzat onuragarri bat” dela¹⁴¹.

Goian aipatutakoaren hildotik berak ikusten du, bai, problematika hau behin baino gehiagotan tratatua eta landua izan dela, baina onartu egin behar du ere burututako ikerketa horietako gehienak oso eskasak direla. Humboldt-ek dioen bezala, orain arteko hizkuntz-konparaketa bestelako helburuen arabera egin izan dira: edo “ikerketa historiko” ezberdinak osatzeko edo “jatorrizko hizkuntza baten ideia kimerikoa oinarritzeko” edo “hizkuntza partikular baten edo bestearen jebekuntza errazteko”¹⁴². Antzeko hutsuneak aurkitzen ditu ere ohizko hizkuntz-gramatika orokorretan, ze hauek “era isolatuan eta adibideen bitartez bakarrik erakusten dute beti, nola hizkuntza honek edo besteak zeregin hau edo bestea konpontzen duen”¹⁴³. Humboldt-ek ez du ukatzen ikerketa horiek erreflexio interesgarriak eskeintzen dutenik, baina bere ustetan zatikako lanak baino ez dira eta honela ezin dute hizkuntz-estudioaren berezko helburua asetu. “Funtsezkoena” falta zaie, ze ez dute “egin-beharrekoaren orokortasuna” kontutan hartzen¹⁴⁴. Humboldt-entzat hizkuntz-estudioaren zeregina lehenik eta behin honako hau da: “hizkuntz-erreserbaren masa osoa ahalik eta konpletoen biltzea” eta “hizkuntza guztiak printzipio berberen arabera” konparatzea¹⁴⁵. Planteamendu honen haritik bi zeregin antropologiko garrantzitsu bete ditzake hizkuntz-estudioak: batetik, hizkuntza “ondorio” bezala kontsideratuz eta “atzeraka” joanez, “gizakiaren jokatzeko era” ikertzea, zeinaren arabera “hizkuntza sortu eta garatu” zen; bestetik, hizkuntza “zergati” bezala kontsideratuz eta “aurrera-

139. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”.

140. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”; ikus Trabant 1990 S. 75-76 orr., Leibniz-i buruz.

141. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”.

142. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”; ikus honetarako Flitner/Giel in WfB V, 645 or.

143. VII, 599 or. (V, 106 or.) “Fragmente”; ikus dazu Flitner/Giel in WfB V, 645 or.

144. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”.

145. VII, 598-599 orr. (V, 106-107 orr.) “Fragmente”.

ka” joanez, gizakiaren “berezko formazioa ondorioztatzea”¹⁴⁶. Humboldt-en arabera bi zeregin hauek, gizakiaren ezagutza formatibo batetarako ezinbestekoak direnak, “aldi berean hartu beharko dute kontutan gizakiaren natura orokorreakiko kontsiderazio filosofikoa eta herrien patu ezberdinekiko kontsiderazio historikoa”¹⁴⁷.

Horrela ba, Humboldt-en hizkuntz-estudio hau bere jatorrizko “antropologia konparatua”-ren forma garatu bat baino ez da eta, honengatik hain zuzen, ezin da hura hizkuntzen arteko konparaketa linguistiko soil batekin konformatu. “Ezagutzen den hizkuntzen erreserba guztia”, idazten du berak, “arrazoi-menak irudikatzen duen gizakiaren natura osoarekin eta historiak erakusten dizkigun bere leinu ezberdinen patu guztiekin” behar da izan konparatua¹⁴⁸. Pertsona askoren artean burutu beharreko ikerketa zabal hauen helburua “ez da zientzia berri bat” sortzea, baizik eta, Humboldt-ek berak dioen bezala, “orain arte egin denaren haritik estudio berri bat “ abian jartzea”¹⁴⁹. Perspektiba honetatik hain zuzen ahaleginduko da bera erakusten, nola “landu beharko litzatekeen [hizkuntz-estudioa] sistematikoki hemendik aurrera”¹⁵⁰.

2. Ondoren komentatuko dugun ideia, Humboldt-ek era honetako hizkuntz-estudioei egozten dien helburu nagusiarekin du zerikusia, alegia, estudio horien interes orokorreakin. Hau ondo ulertzeko ezinbestekoa da “hizkuntzen garrantziaren balorazio”¹⁵¹ zuzen batetik abiatzea. Neurri batean Humboldt-ek gauditutzat ikusten du “hizkuntzen dibertsitatea, kulturaren oztopo kaltegarri bat bezala, eta haien jabekuntza, heziketaren halabeharrezko gaitz bat bezala”¹⁵² kontsideratzen duen hizkuntz-kontzepzioa, baina bere ustetan “ez gara oraindik iritsi, hizkuntza dagokion nazioa edo bertako idazleak ulertzeko bitarteko huts bat bezala ez behatzera”¹⁵³. Bere ustetan, alegia, hizkuntzek ez dute euren literaturagatik bakarrik izan behar baloratuak, ze munduko edozein hizkuntza, literarioki osatua egon edo ez, berez da balio-tsua. Horrela ba, hizkuntz-estudio entziklopediko baten “helburu nagusia” zera izan daiteke bakarrik: “hizkuntza berez eta beretzako [dena], interes orokorreko estudio garrantzitsu bat bezala aurkeztea”¹⁵⁴.

Hizkuntzari buruzko kuestio filosofikoenak alde batera utzita, gu hemen Humboldt-ek problematika antropologikoaren hildotik lantzen dituen hizkun-

146. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

147. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

148. VII, 598 or. (V, 106 or.) “Fragmente”.

149. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

150. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

151. VII, 601 or. (V, 110 or.) “Fragmente”.

152. VII, 601 or. (V, 110 or.) “Fragmente”.

153. VII, 601 or. (V, 110 or.) “Fragmente”.

154. VII, 599, 601 orr. (V, 107, 109-110 orr.) “Fragmente”.

tzari buruzko bi ideiatz arituko gara. Batetik, hizkuntza bakoitzak mundu-ikuskeraz ordezkaezin bat osatzen duelaren ideia dugu. Humboldt-ek dioen bezala: “Hizkuntza ezberdinak ez dira gauza baten hainbat deitura; beraren ikuskera ezberdinak baizik”¹⁵⁵. Horrela ba, hizkuntza baten baitan erreproduzio exaktorik ez dagoen bezala, ez da existitzen ere erabateko itzulpen zehatzik hizkuntza batetik bestera pasatzerakoan. Bereziki gauza ez materialetan ikusten du Humboldt-ek garbi, nola gizaki bakoitzak espresio “arrotz bat ulertu eta itzuli nahi duenean”, bere hizkuntzatik abiatzen den eta helburu “horretarako beharrezkoak dituen elementuak bakarrik aurkitzen” dituen beste hizkuntzan¹⁵⁶. Honen haritik hizkuntzak “hieroglifikoekin” konparatzen ditu, “zeinetan bakoitzak mundua eta bere fantasia inprimatzen duen”, alegia, “bata bestearengandik erreproduzitzen, ugaritzen eta beti osatzen diren” hieroglifikoekin¹⁵⁷. Humboldt-ek garbi du, beraz, dibertsitate linguistikoari esker “gizakiaren existentziaren hedadura”¹⁵⁸ zabaldu egiten dela, eta honengatik du berak hura positibotzat eta desiragarritzat: “Hizkuntzen aniztasunari esker haunditu egiten da berehala guretzat, munduaren aberastasuna eta guk bertan antzematen dugunaren aniztasuna”¹⁵⁹. Komentatzeko gelditzen zaigun ideia, bestetik, Humboldt-en arabera hizkuntza ezberdinen ikerketak gizakiaren ezagutzari eta formazioari eskeini diezaiokeenarekin du zerikusia. “Nazio osoen jabetza” diren neurrian, hizkuntzek “giza-natura guztia, garbia eta sinplea” eskeintzen diote gizakiari, eta honengatik da posible eta zentzuzkoa hizkuntzen dibertsitatea sinkronikoki zein diakronikoki aztertzea¹⁶⁰. Azken finean Humboldt-ek beharrezkoak ikusten ditu hizkuntzak gizadiaren historia ikertu ahal izateko, hizkuntza horien azterketa, bestalde, ezinbestean zabala eta alde askotarikoa izan beharko duelarik. Honela dio berak:

“Lurreko hizkuntzen estudioa, beraz, gizadiaren pentsamenduen eta sententziazioen mundu-historia da. Harek gizakia eremu guztietan eta bere kulturaren maila guztietan deskribatzen du; bere baitan ezin da ezer falta, ze gizakiari dagokiona gizakiaren gertuko interesekoa da”¹⁶¹.

Hemendik abiatuz, Humboldt-i bereziki interesatzen zaio herri zaharren eta euren hizkuntzen estudioa, ze “herri haien irudimen ... mugikor eta biziaren” bidez, posible ikusten du bere garaiko eta inguruko “kultura arrazional lehorra” freskatzea¹⁶².

155. VII, 602 or. (V, 110 or.) “Fragmente”.

156. VII, 602 or. (V, 110 or.) “Fragmente”.

157. VII, 602 or. (V, 110-111 orr.) “Fragmente”.

158. VII, 602 or. (V, 111 or.) “Fragmente”.

159. VII, 602 or. (V, 111 or.) “Fragmente”; ikus ere IV, 27 or. (III, 19-20 orr.).

160. VII, 602 or. (V, 111 or.) “Fragmente”; ikus ere VII, 597 or. (V, 104-105 orr.).

161. VII, 602-3 orr. (V, 111 or.) “Fragmente”.

162. VII, 602 or. (V, 111 or.) “Fragmente”.

Humboldt-ek “Fragmente” testuan idazten dituen ondorengo hitzek ederki asko laburtzen dute hizkuntz-estudioaren, alegia, bere hizkuntz-entziklopediaren benetako helburua:

“Honako proposamenak egiaz nahi duena ondorengo hau baino ez da: hizkuntzaren estudio propio bat egitea (hau da, hizkuntzarena orokorrean bai eta lurreko mintzaira partikular guztiena), zein beste guztiengandik banandua eta bere baitan sistematikoki ordenatua dena; eta estudio hau, orain arte honela kontsideratu ez bada ere, bitarteko garrantzitsu bat bezala eraikitzea, gizakia bere kulturaren maila ezberdinetan ezagutzeko eta formatzeko, eta honekin batera baita hizkuntza partikularren jabekuntza errazteko”¹⁶³.

3. Aipatutako zeregin nagusi eta orokorretaz aparte hizkuntz-estudioak badu bestelako helbururik, adibidez, “hizkuntzen jabekuntzaren erraztearen”¹⁶⁴ helburu praktikoa. Humboldt-en saiakera antropologiko-linguistikoak gizakia eta hizkuntzaren arteko interakzio sakonetik abiatzen diren neurrian, lagungarri izan daiteke guretzat hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruz esaten dituenak eza-gutzea, honi esker posible izango bait dugu bere hizkuntzaren kontzepzio orokorra hobeto ulertzea. Dena den, garbi adierazi beharrekoa da hasieratik, hizkuntza ezberdinen jabekuntza bideratzea eta samurtzea Humboldt-en ikerketan linguistikoen eta hizkuntz-entziklopediaren “garrantzi altueneko” helburu bat bada ere, hau ez dela berarentzat “helburu osagarri” bat baino gehiago¹⁶⁵.

Ohizko hizkuntzen gramatikak aztertzerakoan, kasu isolatuen azalpen sistematiko gehiegi eta jarraitu beharreko arau gutxiegi aurkitzen du Humboldt-ek. Gramatika horiek ahaztu egiten dute “giza izpirituak ... beti ere erraz ondorioztatzen duela orokorra dena banakoaren itxurazko kaosetik, baina kontrari nekez aurkitzen duela bertan espezifikoa dena”¹⁶⁶. Honengatik Humboldt-en ustetan atzerriko hizkuntzen jabekuntzan garrantzitsuena erreferentzi puntuak zehaztea da. Berak dioen bezala: “Ikaste ororen zailtasun nagusia garaiz orientatzea da, oriotenari arauen bitartez laguntzea. Hizkuntz-irakaskuntzan bezala, behar hau ez da beste inon hain premiazkoa”¹⁶⁷. Zoritarrez ordea hizkuntz-metodo arruntenek ez dute nahiko kontsideratzen aspektu hau, eta honengatik Humboldt-entzat hauetako gehienak alferrikakoak dira, ze beraiekin ikaslea “hitzen baso batetan” edota “forma pila neketsu batetan” erortzen da¹⁶⁸. Hizkuntza arrotz bat ikasterakoan garrantzitsuena “bapatean argitasun garbi bat” eskeintzen duten “oharrekin” topo egitea da, bai eta “taktu bat” garatzea, zeini esker batek hizkuntzaren elementu guztien lotura “zihurtasunez antzematen” duen¹⁶⁹. Guzti

163. VII, 603 or. (V, 111 or.) “Fragmente”.

164. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

165. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

166. VII, 593 or. (V, 100-101 orr.) “Fragmente” (lehen oharra).

167. VII, 599 or. (V, 107 or.) “Fragmente”.

168. VII, 600 or. (V, 107-108 orr.) “Fragmente”.

169. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”; ikus ere I, 399 or. (I, 363 or.) eta II, 81 or. (I, 468 or.): “taktuak” giza-ezagutzarentzako duen garrantziari buruz.

hau era sakonenean behatuz, Humboldt-entzat garbi dago, ikasle orok berezkoa duen gaitasun linguistikoak paper garrantzitsuago bat jokatzen duela beste hizkuntza bat ikasterakoan, metodo gramatikal eta lexikal guztiek baino. Honela mintzatzen da bera hizkuntz-ikasleari buruz:

“Honek bere ingenioari ahal bezain beste forma mantenduko dizkio presente, beretik hartzen dituenak hain zuzen; eta orduan, bere hizkuntz-formaziorako ahalmenaren eskutan [erortzen] uzten delarik, berak bertan ateratzen du forma partikular horietatik hizkuntzaren formaren tipo orokor bat”¹⁷⁰.

Aipatutako “hizkuntzaren tipo orokorraren” ideia, Humboldt-ek testu honetan “analogia” kontzeptuaren laguntzarekin azaltzen du. Hau dela eta garrantzitsua da konturatzea, honekin berak abian jartzen duela bere hizkuntz-teoria orokorraren oinarritzko ideia izango den “barruko hizkuntz-forma”-ren kontzeptuaren garapena. Humboldt-en arabera hizkuntzak osatzen duen batasuna ez da mekanikoa, baizik eta organikoa; honengatik bere barne-lotura ezin da formula batetik bezala ondorioztatatu, aldiz, analogikoki interpretatu eta azaldu ahal izango da bakarrik. Gizabanako bakoitzak bere hizkuntza propioa hitzegiten duenean ere, ez du hainbeste oroituz, baizik eta sortuz jokatzen, hau da, hura “ilun antzemandako analogien arabera” berriz ere garatuz¹⁷¹. Antzeko zerbait gertatzen da Humboldt-en ustetan gizabanako batek hizkuntza arrotz bat ikasi nahi duenean. Honen barne-lotura ulertu ahal izateko, hizkuntz-ikasleak ezinbestean jokatu behar du “beti eta aldi berean espontaneoki edo aktiboki, eta ez bakarrik pasiboki edo hartzaileki”¹⁷². Humboldt-ek dioen bezala, hemen kokatzen da hain zuzen hizkuntza ezezagun baten jabekuntzaren zailtasuna, baina baita ere zentzua: “Kontua zera da bakarrik: bere analogiaren izpiritua aurkitzea, eta hau da hizkuntz-jabekuntza ororen puntu kritikoa, zeinengandik beraren onura oro eta berezko atsegín oro sortzen den”¹⁷³. Honekin batera ohartu beharrekoa da, giza-naturaren orokortasunarekin gertatzen den bezala, hizkuntza ezberdinak ere “analogi amankomun baten arauen pean”¹⁷⁴ duadela. Honengatik dio Humboldt-ek trebatutako taktu linguistiko batek azkarrago antzeman eta uler ditzakeela hizkuntza berrien singularitateak. Ez da harritzekoa, beraz, berak hizkuntza arrotz bat, ez isolatuki, baizik eta beste batzuekin batera ikastearen ideia azpimarratzea. Humboldt-ek azaltzen duen bezala:

“Esperientzia ezagun bat da hau: lehendik hizkuntza ezberdinak sakon ikasi dituen batek beste hizkuntza berri batekin hasterakoan, berau errazago ikasteaz gain, bide erdia egina du honen singularkitateak antzemateko orduan, ze honen jabekuntzaren aurretik berak jada taktu linguistikoa trebatu bait du”¹⁷⁵.

170. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”.

171. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”.

172. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”.

173. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”.

174. VII, 600 or. (V, 108 or.) “Fragmente”.

175. VII, 600 or. (V, 108-109 orr.) “Fragmente”.

Ikusi ahal izan dugun bezala, hizkuntzen jabekuntzari buruzko ohar hauek argibide asko eskeintzen digute Humboldt-en hizkuntz-estudioa orokorrean hobeto ulertzeko. Beti ere, “sistematikoki pentsatutako hizkuntz-entziklopedia” baten helburua, bere ustetan, “gizakiak eta hizkuntzak elkarren artean dituzten erlazioak perspektiba guztietatik” aztertzea da¹⁷⁶. Zehatzago bi zeregin ikusten dizkio Humboldt-ek era honetan planteatutako ikerketa: batetik, osatu egin beharko luke “hizkuntz-dibertsitate posiblearen koadroa”, bai “arrazoimenari” bai eta “esperientziari” jarraituz, eta bestetik, aurkeztu egin beharko luke “nola lurreko nazio ezberdinek, bakoitzak bereztat, euren zeregin ugariak osatzen dituzten”, jakinda guzti hau “hizkuntzan isladatzen dela”¹⁷⁷. Kontua da “hizkuntza partikular bakoitzaren karakterea” “bere singularitateen arabera” deskribatzea, honen laguntzaz hizkuntza ezberdinak “euren ahaidetasun-mailaren arabera” taldekatzea eta bakoitza “bere egiazko lekuan kokatzea”¹⁷⁸. Azken finean Humboldt-ek guzti honekin “gizakiaren hizkuntz-prozedura osoaren ikuspegi sistematiko bat”¹⁷⁹ eraiki nahi du.

3. ONDORIOA

Idazlan honen helburua, Humboldt-ek euskaldunei buruz egitea pentsatzen zuen ikerketa monografikoaren nondik norakoak, zergatiak eta helburuak, argitzea zen, guztiaren oinarrian dagoen planteamendu antropologikoa erreferentzi puntu bezala edukiz. Honetarako bi testu ezberdinetaz baliatu izan gara batez ere, “Fragmente der Monographie über die Basken” (1801-1802) eta “Ankündigung einer Schrift über die baskische Sprache und Nation” (1812), non gure autoreak ondoen lantzen eta aurkezten duen bere egitasmoa. Guzti honetatik bi ideia garrantzitsu azpimarratuko ditugu: 1. Humboldt-en antropologiak, euskal ikerketen eskutik, herrien karakterologia deskribatzaileago batetik hizkuntz-estudio orokorrago batetarako pausua ematen du. 2. Aipatutako testutan bere hizkuntz-teoria orokorraren gida osatuko duten zenbait ideia garatuko ditu lehenengo aldiz. Gogoeta hauen garrantzia azpimarratu nahian, Humboldt-en bi ikertzailearen hitzak emango ditugu orain ezagutzera.

Honako hau idazten du C. Menze-k “Fragmente” testuari buruz bere “W. v. Humboldts Lehre und Bild vom Menschen” izenburuko liburuan:

“Euskaldunei buruzko ikerketarekin Humboldt-en hizkuntz-filosofiarako bideak bere amaiera aurkitzen du. Jarria dago oinarria, zeinaren gainean orain hizkuntz-filosofia erako konstrukzio izugarria eraikia behar duen izan. Oinarritzko ideia erabakiorrak ez daude erabat eta garbi landuta, baina bai bere muinean begibistan

176. VII, 601 or. (V, 109 or.) “Fragmente”.

177. VII, 601 or. (V, 109 or.) “Fragmente”.

178. VII, 601 or. (V, 109 or.) “Fragmente”.

179. VII, 601 or. (V, 109 or.) “Fragmente”.

jarriak. 1., Gizakia hizkuntzari esker da bakarrik gizaki. 2., Gizakiaren hizkuntzaren ganako disposizioa eta soziabilitaterako beharra elkarrekin datoz. Gizakia funtsean hiztuna den bezala, bada ere honela animalia sozial bat. 3., Hizkuntza bakoitza bere mundu-ikuskera propioa du. Munduaren kontzeptzioa aldatu egiten da, hura interpretatzen duen hizkuntzaren arabera. Hizkuntzak Ni eta Munduaren arteko bitartekari lana egiten du. 4., Hizkuntzaren baitan du gizakiak bere formazioa aukera, bere mundu-ikuskera zabaltzeko eta bere Ni-a lantzekoa, baina baita berak bere buruaren ulermena irekitzekoa. 5., Hizkuntza, organu konfigurazioa bezala beti da 'energeia', izpirituaren tentsio iraunkorra. Berari dagokio ere ulertzearen ekintza, zein era berdinean ez da hartze pasibo bat baizik eta baita sujetuaren espontaneitateak hazten den zerbit¹⁸⁰.

H. Schwarz-ek berriz ondorengo hitzak idazten ditu "Ankündigung" testuari buruz, H. Gipper-ekin batera idatzitako "Bibliographisches Handbuch zur Sprachinhaltsforschung" izenburuko obran:

"Euskaldunen hizkuntzari eta nazionalitateari buruzko urte askotako lanetan ordea, etenaldi ezberdinen ondoren beti berriz hartu izan ziren lanetan, alegia, Humboldt-en hizkuntzaren esentziari eta honen herri-karakterearentzako garrantziari buruzko ikuskeraren funtsezko aspektuak heldutasuna hartzen doaz. Honen lekuko da ere aurreko anuntzioa ["Ankündigung"], non bere oinarritzko ideien arabera monografiaren plana garatzen den. Steinthal-ek antzeman du jada, hitzaurre moduko testu bereizi horretan, dagoeneko, Humboldt-en geroagoko teoria linguistiko-filosofikoak erretze-moduan daudela prestatuta. Hala ere badirudi orain arteko ikerketari izkutatuta geratu zaiola, testu honetan bereziki 'analogia' hitz-programatikoarekin Humboldt-en hizkuntz-kontzeptzioaren zati garrantzitsuenaren oinarritzko ideia aurreratua dela jada, alegia, 'energeia'-ideiarekin ahaidetuta dagoen 'barne-hizkuntz-forma' kontzeptuaren kontzeptzioa, bai eta hizkuntza baten formen erreserbatik aktiboa den eta bere izakera aldiro era singularrean antolatzen duen modelatzeko-indarraren kontzeptuaren kontzeptzioa. Honen adierazle da testu horretako ondorengo esaldia: 'Printzipio ziur bat bezala har daiteke, hizkuntza batetan guztia analogian oinarritzen dela eta bere egitura, bere zati txikineraino ere, egitura organiko bat dela.' Esaldi hau eta ondoren datozenak, -zeintzuk barne-hizkuntz-formaren ideiarekiko bere erlazioa, analogiaren aktibitatea eta kanpo-eragin bidez sortutako honen bihurdurak argiago azaltzen duten-, interesgarriak dira ere honengatik: hemen 'barne-hizkuntz-formaren' ideia oraindik inpartzialtasun lasaian da aurkeztua, alegia, beranduago batzutan aurkitzen diren exagerazioetatik urrun, erabat homogeneouski eragiten duen eta hizkuntza baten antolaketa fonetikoa zein kontzeptuala azken muturreraino era propio batez zeharkatzen duen indar baten printzipio [exageratu] batetik aske"¹⁸¹.

Eskeini ditugun bi ikertzaile ospetsu hauen hitzek garbi erakusten dute Humboldt-ek Euskal Herriari, Euskaldunei eta Euskarari eskeinitako atentzioa eta lana ez direla nola-nahikoak izan. Deskuidatzeko beldurrik gabe esan dai-

180. Menze 1965 S. 216 or.

181. Gipper/Schwarz 1969 Nr. 8814; H. Steinthal-i buruz ikus bere "Die sprachphilosophischen Werke Humboldts", Dummler, Berlin 1883-1884; Humboldt-en zitarako, berriz, ikus III 296 (V 121) "Ankündigung".

teke, euskal gaiak bere “antropologia konparatuaren” eta bere “hizkuntz-teoriaren” baitan leku aparta betetzen duela, saiakera horien artean zubi-lana egiten duelarik. Azken finean, euskal ikerketei esker Humboldt-ek norabide berri bat ematen dio gizakiari buruzko problematikari, hemendik aurrera bere antropologia hizkuntzaren estudio zabal bat bezala garatuko duelarik. Euskal monografia berari dagokionez, bestela, gogoratu beharra dago berriz ere, ez zela inoiz hasieran pentsatutako forman burutua izan. Baina era berdinean da egia, Humboldt-ek euskal ikerketa horretarako aurrakusiak zituen atal eta gai guztiak sakon aztertzeko beta izan zuela bere bizitzan zehar. Honen leku-ko dira bere bidai deskribapenak, bere hizkuntz analisiak eta bere estudio pre-historikoak.

BIBLIOGRAFIA

(entseiu honetan zitatutako lanak bakarrik)

W. v. Humboldt-en obrak:

Edizio orokorrak:

“Gesammelte Schriften” (Bd. I-XVII) [GS]

Hrsg. u. a. von A. Leitzmann, Behr, Berlin 1903-1936.

“Werke in fünf Bänden” (Bd. I-V) [WfB]

Hrsg. von A. Flitner und K. Giel, Wiss. Buchgesellschaft, Darmstadt 1960-1981.

Testuak:

“Ankündigung einer Schrift über die Vaskische Sprache und Nation, nebst Angabe des Gesichtspunctes und Inhalts derselben” (1812)

GS III 288-300 (WfB V 113-126)

“Anmerkung über die baskische Sprache”

in Fischer 1801, T. 1, p. 139-144

“Betrachtungen über die Weltgeschichte” (1814)

GS III 350-359 (WfB I 567-578)

“Betrachtungen über die bewegenden Ursachen in der Weltgeschichte” (1818)

GS III 360-366 (WfB I 578-584)

“Fragmente der Monographie über die Basken” (1801-1802)

GS VII 593-603 (WfB V 100-112)

“Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens

vermittelst der vaskischen Sprache” (1820-1821)

GS IV 57-232

“Die Vasken” (1805)

GS XIII 1-197 (WfB II 418-627)

“Über das vergleichende Sprachstudium in Beziehung auf die verschiedenen Epochen der Sprachentwicklung” (1820)

GS IV 1-34 (WfB III 1-25)

Eskutitzak (hartzaileen arabera):

Ducos:

Farinelli 1898 (Hrsg.)

in A. Farinelli, "G. de Humboldt et l'Espagne"

Revue hispanique V Hrsg. Von A. Picard et fils, Paris 1898, S. 58-60

Erro:

Gárate 1934 (Hrsg.)

"Cinco cartas inéditas de G. de Humboldt"

in "Revista internacional de los Estudios Vascos - RIEV" T. XXV 1934, pp. 430-444, 622-639

Kunth:

Leitzmann 1940 (Hrsg.)

in Leitzmann, Albert, "W. v. Humboldt und sein Erzieher. Mit ungedruckten Breifen Humboldts", Verlag der Akademie der Wissenschaften, Berlin 1940.

Murga:

Gárate 1934 (Hrsg.)

"Cinco cartas inéditas de G. de Humboldt"

in "Revista internacional de los Estudios Vascos - RIEV". T. XXV 1934, pp. 430-444, 622-639

Schweighäuser:

Leitzmann 1934 (Hrsg.)

"Wilhelm von Humboldts Briefe an Johann Gottfried Schweighäuser"

(Jen. Germ. Forsch. Bd.25). Auch Nachtrag. Frommann-Biedermann Verlag. Jena 1934.

Schiller:

Seidel 1962 (Hrsg.)

"Der Briefwechsel zwischen Friedrich Schiller u. Wilhelm von Humboldt" (2 Bde) Aufbau Verlag, Berlin 1962.

Wolf:

Mattson 1990 (Hrsg.)

"Wilhelm von Humboldt. Briefe an Friedrich August Wolf", Walter de Gruyter Verlag. Berlin-Neu York 1990.

W. v. Humboldt-i buruzko obrak:

FISCHER, Christian August. *Voyage en Espagne, aux années 1797 et 1798; faisant suite au Voyage en Espagne*, du citoyen Bourgoing. Trad.: Chr. Fr. Crammer, T. 1-2, Paris, 1801.

FLITNER, Andreas; GIEL, Klaus (Hrsg.). "Kommentare und Anmerkungen zu Band" I-V. In: W. v. Humboldts *Werke in fünf Bände* Bd. V S. 1981; 285-700 orr.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakutzen, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Zabaleta-Gorrotxategi, Iñaki: Wilhelm von Humboldt, Euskaldunak eta Euskara

GIPPER, Helmut; SCHWARZ, Hans (Herausgeber). *Bibliographisches Handbuch zur Sprachinhaltsforschung* (Werke Humboldts von Nr. 8807 bis Nr. 8851) 1969.

MENZE, Clemens, *Wilhelm von Humboldts Lehre und Bild vom Menschen*, A. Henn-Verlag, Ratingen, 1965.

TRABANT, Jürgen. *Traditionen Humboldts*, Suhrkamp: Frankfurt am Main, 1990.